

Artikulu honen helburua da, alde batetik, Nafarroaren konkista eta inkorporazioari buruz dagoen bibliografiaren aztertze analitiko bat egitea, bereziki azken 40 urte hauetako produkzioan bereizi daitezkeen korronte eta adar historiografiko ezberdinen arabera. Bigarren partean, premisa metodologikoak aztertzen dira: egoera geopolitikoa (Italia bereziki), dinastien arteko lehiaren eragina, Fernando Katolikoak eta garaiko Aita Santuek izan zuten protagonismoa, eta zuzenbidearen eta erakundeen iraupenaren sendotasuna.

Giltza-Hitzak: Nafarroaren konkista. Nafarroaren inkorporazioa. Nafarroa Gaztelan inkorporatua. Nafarroako zuzenbidea eta erakundeak. Nafarroaren historiografia.

El objetivo de este artículo es, por un lado, hacer un estudio analítico de la bibliografía existente en torno a la conquista e incorporación de Navarra, fundamentalmente en función de las distintas corrientes y ramas historiográficas que se pueden distinguir en la producción de los últimos 40 años. En la segunda parte se analizan las premisas metodológicas: situación geopolítica (Italia fundamentalmente), efecto de la lucha entre dinastías, protagonismo de Fernando el Católico y de los Papas de la época, y firmeza de la conservación del derecho y de las instituciones.

Palabras Clave: Conquista de Navarra. Incorporación de Navarra. Navarra incorporada a Castilla. Derecho e instituciones de Navarra. Historiografía de Navarra.

Le but de cet article est, en premier lieu, de faire une étude analytique de la bibliographie existante sur la conquête et l'incorporation de la Navarre, principalement en fonction des différents courants et branches historiographiques de la production des 40 dernières années. La deuxième partie analyse les prémisses méthodologiques : la situation géopolitique (de l'Italie, notamment), l'effet de la rivalité entre dynasties, le rôle de Ferdinand le Catholique et des Papes de l'époque et la protection des droits et des institutions.

Mots-Clés : Conquête de la Navarre. Incorporation de la Navarre. La Navarre incorporée à la Castille. Droits et institutions de la Navarre. Historiographie de la Navarre.

---

1. Artikulu hau DER2012-39719-C03-01 proiektuan eta UPV/EHUko UFI 11/05 taldean kokatzen da.

# Nafarroaren konkista eta inkorporazioa (1512-1515).

Zenbait gogoeta, azken  
ekarpen historiografikoak  
bereziki kontuan hartuz<sup>r</sup>

(Conquest and incorporation of  
Navarre (1512-1515). Some  
considerations taking particularly into  
account the recent bibliography)

**Arrieta Alberdi, Jon**

Euskal Herriko Unib. (UPV/EHU). Zuzenbide Fak.  
Nazioarteko Zuzenbide Publikoaren, Nazioarteko  
Harreman eta Zuzenbide Historiaren Saila. Manuel  
de Lardizabal pasealekua, 2. 20018 Donostia  
[dhparali@ehu.es](mailto:dhparali@ehu.es)

## 1. Sarrera. Artikulu honen helburuak

Denbora, tradizio biblikoaren zenbatzeko moduan hartuz, 2000 urteko ziklotan bereizten zen, 500 urteko zatiak eginez. Denboraren sendotasun epe hauek kontuan hartuz, 500 urtekoa daukagu 2012an, 1512ko gertakarien ondoren: badirudi au-kera egokitzat har genezakeela urteurren hori, besteak beste, Nafarroaren historiari dagokionez, eresumaren konkistaren inguruan sortu den historiografia aztertzeko. Ezin dugu baztertu, halaber, europar ikuspegijarekin historiari begiratuz, bigarren milakadaren amaiera eta hirugarrenaren hasieran bizitzen ari garen ziklo berria. Data esanguratsuak, beraz, eta egitate erabakigarriak, gure azterketa honen abiapuntuari heltzeko unean.

Artikulu honen ikuspegitik, 1512ko egitate haien historiografia Nafarroako historiak sortu duenaren baitan koka behar dela argi dago. Horrek esan nahi du, proposatu dezaketen balorazioa eresuma nafarrak jaioarazi duen produkzio historiografiko aberats eta oparoaren eremuan egongo garela. Nafarroako historiografia orokorraren barnean daukate 1512ko gertakariekin beren zentzua, eta bibliografia nahiko aproposa sortu dute, dagoeneko<sup>2</sup>. Denbora luzea, gora behera anitz, baina aztertze gaia, Nafarroaren norabide historikoa, finkotasun sendoa agertzen zaigu.

Norabide horretan izandako urrats berezia da, noski, konkistatua izana, eta beste koroa baten integratua. Galdera egokia da horrelako aldaketak sortu duen historiografian, ea ote dagoen historiografia bera aztertzeko izandako ekimenik. Baiezko erantzuna eman daitekeelakoan nago, bereziki azken urteotako produkzioari erre-

---

2. Azken bilduma bibliografiko egoki bat, ADOT, Álvaro. "En los umbrales de España. La incorporación del Reino de Navarra a la Monarquía Hispana. Una aproximación bibliográfica". In: *En los umbrales de España. La incorporación del Reino de Navarra a la monarquía hispana* (Actas de la XXXVIII Semana de Estudios Medievales de Estella. 18 al 22 julio 2011). Pamplona: Gobierno de Navarra, 2012; 447-478 orr. Beste azken zerrenda bibliografioka, oso egokia, aberatsa, eta modu aproposean alor ezberdinetan banatua: MONREAL ZIA, Gregorio; JIMENO ARANGUREN, Roldán. *Textos histórico-jurídicos navarros. Vol II. Historia moderna*. Pamplona: Gobierno de Navarra, Colección "Pro Libertate", 2011; 128-132 orr.

paratzen badiogu, non Nafarroa ‘memoriaren leku’ bezala hartua izan baita<sup>3</sup>. Bestalde, ez dira eskasak, ez kopuruan ez kalitatean, 1512eko aldaketek sorrarazi duten historiografia bera aztertzen dituzten artikuluak. Ez dago esan beharrik horrek berak gure proposamen honetarako lagunza berezia ematen digula, baina baita ere ekarpen horiek kontuan hartu behar direla. Hortik sortzen da lehen artikulu bat aipatzeko parada, historiografiaren historialari batek, Juan María Sanchez Prietoak, aztertu baitu Nafarroako konkista eta inkorporazioak azken bi mendeetan agertzen dituen fruituak, adar eta korronte ezberdinak ongi bereiziz. Badugu, eta ez da gutxi, lehen gida aproposa<sup>4</sup>, lehenik eta behin jabetu gaitezen egitate haien begiztatzezko moduak berak duen garrantziaz. Helburu hori lortzeko azken 25 urteetan egin diren balorazioak bereziki aztertea izan daiteke gure hurrengo abiapuntua.

## **2. Konkista eta inkorporazioari buruz egin diren balantze historiografikoak**

### **2.1. Konkistaren 475. urteurrenean egindako balantzea**

Konkistaren 475. urteurrena bete zenean, Eusko Ikaskuntzaren ekimenez Jose María Jimeno Juriok koordinatuta, egin zen balorazio berezi bat gaiak berak, hau da, Nafarroako historia eta historiografian konkistaren eta inkorporazioaren arazoak, sortutako bibliografia aztertzen zuena<sup>5</sup>. Francisco Javier Sierra Urzaiz zen txosten horren egilea, eta bertan aurkezten zen, besteak beste, gaiak agertzen zituen aurregiak, azterketa alorraz modu sistematikoan bereiziz eta sailkapen horren arabera azpigai bakoitzak sortutako bibliografia zehaztuz eta sailkatuz<sup>6</sup>. Liburuaren bultzatzailea izan zen J. M. Jimeno Juriok ere, aurkezpen orokor gisa planteatzen zuen gaia bera nola har zitekeen, kontuan hartuz zein adar agertzen ziren oraindik aztertze lan eskasean edo zenbait topiko eta iritzi sasi finkatuen azpian. Azken hauen bereziki azpimarratzen zituen Jimeno Juriok, berrikuspen kritikoaren beharra maha gainean jartzen zuelarik<sup>7</sup>.

3. LEÓNÉ PUNCEL, Santiago. *Los Fueros de Navarra como lugar de la memoria*. Donostia-San Sebastián: FEDHAV, Serie Humboldt, 2, 2002.

4. SÁNCHEZ-PRIETO, Juan María. “Prácticas discursivas y construcción política. Debates en torno a la conquista e integración de Navarra en España durante los siglos XIX y XX”. In: FLORISTÁN, Alfredo (Coord.). *1512. Conquista e incorporación de Navarra. Historiografía, derecho y otros procesos de integración en la Europa renacentista*. Barcelona: Ariel (Gobierno de Navarra), 2012; 63-86 orr.

5. 475 Aniversario Conquista de Navarra: Jornadas históricas. José María JURÍO (et al.). San Sebastián: Eusko Ikaskuntza-Sociedad de Estudios Vascos, Cuadernos de sección Historia-Geografía, 11, 1989.

6. Ibid., SIERRA URZAIZ, Francisco Javier. “La conquista de Navarra: estudio bibliográfico desde el siglo XVI al XX”; 91-120 orr.

7. Ibid., JIMENO JURÍO, José María. “La guerra de 1512- 1522 y su repercusión sobre los territorios de la corona de Navarra”; 11-32 orr. Autore honek, Boissonaderen haritik, oso garbi bereizten diu gaiak: bitasun soziala (agramontarrak eta beaumondarrak); konkista armatura; buldak; leialak; lehen berkonkistaren frakasoa eta hurrengoa; Amaiur; Bibliografia.

## **2.2. Maria Puy Huiciren kritikotasun zorrotza: 1993ean idatzitako *En torno a la conquista de Navarra*, zenbait “topiko” salatzeko asmoan**

Planteamendu berriztazale horien jarraipenean, 1993an Maria Puy Huicik argitaratutako *En torno a la conquista de Navarra* aipatu beharra dago. Huiciren txosten honen balioa, lehenik eta behin, proposatzen zuen topikoen zerrendan zetzan<sup>8</sup>. Zalantzan jarri ezinezkotzat hartzen ziren egitate eta kontzeptuak, hots, topikoak, konkista eta inkorporazioa jaso eta barneratzerakoan, aztertzen zituen, aurrelik topiko horiek identifikatzu, ez bakarrik historiografian, baizik iritzi zabalduenetan, bai alor publiko orokorrean, bai, zentzu hertsia batean, iritzi eta erabilera politikoan. Horrela irakurleak ikus zezakeen topikoen zerrenda bat, artikulu honetarako bereziki interesgarria, une hartan, 1993an, Huicik gaiaren azterte egoera garbi eta esanguratsu baten oinarria ematen zuelako.

Zerrenda hori egiteko, Huicik aurrelik zegoen bibliografiaren analisi zehatza egin zuen, liburu garrantzitsuenak banaka hartuz, eta bakoitzari buruzko iritzi zuena eskainiz. Lehenik eta behin, zalantzak gabe konfirmatzen zuen Lacarra<sup>9</sup> eta Boissonaderen (jatorrizko bertsio orijinalean) monografien balioa<sup>10</sup>.

Huiciren txostenaren fruitu oparoa behar bezala sailkatzeari onuragarria deirtzot, oraindik ere, sei sailetan sartuz berak hamabost inguruko adarretan garatzen zituen arazoak<sup>11</sup>.

1. Lehenengo eta oinarrizko mailan koka daiteke erresumak agertzen zuen egoera, nazioarteko ingurunean iraupenerako zeuzkan posibilitateak baloratzerakoan, erresumaren indar eta hedadura baldintza geoestrategikoaren ikuspegitik kontuan hartuz. Gaia lotzen zen, zerrendaren egilearen ikuspegitik, erresumak jarrera neutralaren irauteko zeukan ahalmenaren alorrean, esan ohi baita ezinezkoa zela jarrera neutral hori, eta nolabaiteko patu determinatuaren menpean zegoela Nafarroa une horretan, Gaztela edo Frantzia, bata edo bestea alegia, inposatuko zelarik.
2. Huicik, aldi berean, deuseztatzen zuen beste topikoa zen, gaiaren alor honetan, Nafarroaren “Frantzia”rekiko mendekotasuna. Erresumaren neutralki geografiko apala ez zen izan oztopo konkista aurrelik iraupen normala mantentzeko. Beraz, ondorioztatzen zuen Huicik, ez luke oinarririk Frantziaren morrontzapean egotearen ideia, ezinbesteko baldintza gisa aurkeztu izan dena.

8. HUICI GOÑI, María Puy. *En torno a la conquista de Navarra*. Pamplona: (egileak berak argitaratua), 1993.

9. LACARRA, José María. *Historia política del reino de Navarra desde sus orígenes hasta su incorporación a Castilla*, vol. 3. Pamplona: Caja de Ahorros de Navarra, 1973.

10. BOISSONNADE, Prosper. *Histoire de la réunion de la Navarre à la Castille. Essai sur les relations des princes de Foix-Albret avec la France et l'Espagne (1479-1521)*. Paris: 1893. Orain Eloisa Ramírez Vaqueroren argitalpen berria, 2005koa, erabil daiteke.

11. Topikoen azterketa hau Huiciren liburuan (*En torno a la conquista de Navarra*, 7. oharrean aipatua) 84-100 orrialdeetan biltzen da nagusiki.

3. Beste gai topiko edo klasikoa: bandoak, nafar gizartearen bitasuna, konkista aurretik izandako gatazka-giro luzea, Juan II.na hain modu zuzenean bizi izan zuena. Huicik errege honen alorrera eramatzen du gaia, Juan II.ari leporatuz gatazka haren konponezintasunaren errua, Gaztelan izan zituen lehia eta interesen mendean jarri zuelako erresumaren norabidea. Are gehiago, errege honek Nafarroa gudu garesti eta arrazoigabekoetara era- man zuela zion Huicik, azkenean, hil zenean, 1479an, erresuma pobrezian utzi zuelarik.
4. Aitari buruzko balorazio gogorra egin ondoren, semea, Fernando Katolikoa, hartzen zuen Huicik, topikoen alorrean. Errege honen egintzak aho batez emankor eta ongi asmatutakotzat hartu izana zen beste iritzi finkatutakoa. Huicik topiko horren justifikazio eza salatzen zuen, Katolikoaren ekimenetan bere interes pertsonala nagusi izan zela uste zuelako. Errege berriak zigorrak eta sariak ongi banatu zituela, bere ikuspegitik, noski, ez du Huicik ukatzen, baina beste sasi egijatzat dauka nafarrek erresumaren konkista Katolikoari esker modu errazean onartu zutela dion argumentua. Balorazio bibliografikoan, ez dio meriturik kentzen Hucik Fernando Katolikoari buruz Suarez Fernándezek idatzitako liburuari<sup>12</sup>, baina iruzkin kritikoak eta mugak jartzeko premia ikusaraziz: azken batean Fernandoren ekimenak, berak zeukan interes pertsonaletan oinarritzen zirelakoan zegoen Huici, eta ez emankortasun eta eskuzabaltasunean.
5. Inkorporazorako bidea konkista izan zenez gero, Huicik arreta berezia jarri zuen prozesuaren aurpegi militarrean. Erresumaren integrazioa erraza, arina, baketsua, orokorrean, eta positiboa izan zela esatea, beste topiko bat izango litzateke, Huiciren iritzian. Lehenik eta behin, erresumak jasandako prozesua okupazio militartzat hartzeko ez zuen izan Huicik inongo kontrako arrazoirik<sup>13</sup>. Puntu horretan armadaren zeregin kontrolatzalea azpimarratzen zuen, zeinari esker ez zen izan errebolta orokor eta indartsurik. Bazeuden motiboak urrats hori emateko, agramontarrek eta beau-mondarrek, azkenean denak kexu eta goibel, batu zitzaketelako beren indarrak. Indar armatuak erresuman zehar modu egoki eta finkoa lu-rraldean zehar kokatuta zeudenez gero, moztu ziren, Huiciren iritzian, erre-boltarako nahi eta indarrak. Ez zen matxinada hori gauzatu populazioa errepresioaren beldurraren mende zegoelako. Beraz, hori da bere konklusioa, erresumak ez zuen etekinik atera, ezta ere ekonomiaren espa-rruan. Alor honetan ere, historialari honek dio Nafarroa bigarren mailako

12. SUÁREZ FERNÁNDEZ, Luis. *Fernando el Católico y Navarra. El proceso de incorporación del reino a la Corona de España*. Madrid: Ediciones Rialp, 1985.

13. Fernando de Arvizuk, *Anuario de Historia del Derecho español*, 70 (2000) 611-614 orrialdeetan aztertzen ditu M.P. Huiciren zenbait idazlan (*En torno a la conquista de Navarra*, Pamplona, 1993; *La Cámara de Comptos de Navarra en los siglos XVI y XVII*, Pamplona, 1996; *La Cámara de Comptos de Navarra entre 1700 y 1836*, Pamplona, 1999). Emaitza zabal honen balorazio positiboa egin ondoren, arreta berezia jartzen dio Huicik erabiltzen duen “ejército de ocupación” kontzeptuari, hauetako lehendabiziko liburuan.

erresuma izatera pasa zela: “Navarra entró en el sostenimiento del imperio proyectado por Castilla ... tuvo que poner tanto, que todavía se podría decir que sufre las consecuencias”<sup>14</sup>.

6. Instituzioei dagokionean, ez zuen ukatzen Huicik mantendu zirenik, baina “gaztelartatu” egin zirela zion, nolabaiteko bitasunean sailkatuak izateko kondizio berriak sortu zirelarik: Gorteak eta Diputazioa alde batetik, erre-sumari lotuagoak; Errege Kontseilua, Epaitegi Gorena (Corte Mayor) eta Camara de Comptos delakoa bestetik, erregearen aldekoagoak.

Huicik agertzen zuen panorama hain kritiko horretan, Lacarraren *Historia política de Navarra* delakoa agertzen zen, 1993an, baliozko testu gisa, gero mantenduko delarik autore honen fidagarritasuna eta sendotasuna. Ikuspegি historiografiko eta metodologiko ezberdinaren gainetik, autore honek eskainitako fruitua funtsa orokor onargarritzat hartzen zuen Huicik.

### **2.3. Nafarroaren Historialarien Kongresua (Viana, 2010) eta Serrano Izkoren balantze historiografikoa**

Azken urteotan sortu izan den beste balantze historiografiko zehatza, Nafarroaren Historialarien Kongresuan egín zen, hain zuzen ere Vianan 2010eko irailean ospatutakoan<sup>15</sup>. Bertan, Bixente Serrano Izkori zegokion konkista eta inkorporazioari buruzko historiografia aztertzea<sup>16</sup>. Berriro ere, Huicik eta Sierra Urzaizek egindako lanaren antzera, Serranok ikuspegি analitikoaz bereizten ditu ezagutza alorrik<sup>17</sup>.

Aurreko produkzioan Lacarraren balioa ez du Serranok ukatzen, eta ezin du ahaztu M. P. Huicik egindako lan kritikoa (artikulu honetan gorago zehazki aztertu duguna), batez ere gai honi buruzko nafar historiografian zeuden topiko eta mugak salatzen asmatu zuela onartuz. Baino Huicik berak (ez dakit Lacarrak ere), badu Serranoren iritzian ezaugarri bereizgarri bat: gaiaik ikuspegи “españiar” batekin aztertzen dituela, orokorrean, eta konkista eta inkorporazioarena ere. Are gehiago, Huiriz leporatzen diona da bere burua argi eta garbi kokatzea “españiar gisa”<sup>18</sup>. Topikoak salatu izanaren meritua ez dio ukatzen Serranok Huirizi, baina ildo es painiarzalean kokatzen du, azken batean, horri akatsaren kutsua emanez.

Benetan baliozkoak diren obrak zehazteko egiten duen monografien azterketan, Santiago Leoneren liburua (*Los Fueros de Navarra como lugar de la me-*

14. HUICI, M. P. *En torno a la conquista de Navarra*, op. cit. 99 orr.

15. 1512 Nafarroaren konkista 500 urte, 500 años de conquista en Navarra, Euskal Herriko Historialarien I. Biltzarreko Aktak. 1512. Actas del I Congreso de Historiadores de Navarra, Donostia-San Sebastián: Txertoa, 2010.

16. Ibid., SERRANO IZKO, Bixente. “Españiar eta nafar bibliografía Nafarroako konquistaz”; 141-150 orr.

17. Bereziki (ibid., 147 orr.) hiru monografia jartzen ditu “ohorezko oholtzan” (hemen aipatu besterik ez ditut egindo, beste azpi-oharetan zehaztuko ditudanez gero): Esarte (*Navarra, 1520-1530*); Adot (*Juan de Albret y Catalina de Foix*); Monteano (*La Guerra de Navarra 1512-1529*). Baliozkotzat jotzen ditu, beste alor batean kokatuz, M. P. Huici ete bere monografiak; Floristán Imízcoz (*Lealtad y patriotismo tras la conquista de Navarra*) eta Fernando de Arvizuren *El conflicto de los Alduides*.

18. Ibid. 145 orr.

*moria*) azpimarratzen du Serranok. Baino liburu hau hartuz eta irakurriz, ikus dai-teke balio handiko obratzat hartzen direla, Leonek berak defendatzen dituen tesi oinarrizkoak azaltzerakoan, adibidez, Alfredo Floristanen hainbat idazlan. Honek sei-nale garbi bat ematen digu: sailkapen historiografikoak irizpide ideologikoetan bereizteko unean (Floristan, adibidez, horietako adar batean kokatuz), oso kontuz ibili beharra dagoela, hain zuzen ere, “datu interesgarriak” ematen dituzten ikerketa lan zorrotzak eta ongi bideratuak, bere balioa izango dutelako egileen ideologia edo jarrera alde batera utzita.

Serranok sailkapen onuragarria eskaintzen du, ezartzen dituen iritzien ez-tabaidagarritasuna alde batera utziz. Historiografia bereizteko irizpide oso egokia, artikuluaren azken lerroetan azaltzen duena litzateke, ene iritzian, modu oso ego-kian bereizten dituelako ikerketa bereziaren harian sortu diren testuak, eta dibulgazia eta saiakera tankerako argitalpenak, batzuk eta besteak bi alor ezberdinetan kokatuz<sup>19</sup>.

## **2.4. Balantze historiografiko baloraztaleak egin ahal izateko beste bi aukera sortu berriak: Alfredo Floristan eta Juan María Sanchez Prieto (azken honen artikuluaren jarraipen zehatza egiteko dauden arrazoia)**

**2.4.1.** Konkistak eta inkorporazioak sortutako historiografia aztertzerakoan, azken garaikoa da interes handiena sortzen diguna, eta horregatik produkzio horretan jar-tzen da artikulu honetan arreta berezia. Ez da ahantzi behar, ordea, gertakizunen ondorengo historiografia ere oso oparoa izan zela. Beharrezkoa zen Pirineoko bi al-detan, XVI, XVII eta XVIII. mendeetan argitaratutako produkzio histiotiografikoaren balorazioa egitea, historiografiaren historiaren ikuspegitik. Azken batean<sup>20</sup>, bestalde, benetan egokitzat har daiteke balorazio hori aro modernoagotan sortutako argital-pen antzekoak behar bezala juzgatzerakoan. Alfredo Floristanek eskaintzen digu, berak koordinatu zuen Kongresuan, historiografia haren analisi zabala, zehatza eta orekatua, iturriak azpisail aproposetan ordenatuz. Horrela, produkzio historiografiko

19. Ibid. 149-150 orr. Dibulgazio mailan, berak idatzitako *Nafarroa. Historiaren hariak* (2005) edo Xose Estevezen *Historia de Euskal Herria. Del hierro al roble* (1996); saiakeraren alorrean, iruditzen zait ongi kokatzen dituela, Florencio Aoizen *La Vieja herida. De la conquista española al Amejoramiento Foral*, Tafalla: Txalaparta 2002; Mikel Soraurenren *Historia de Navarra, el Estado vasco*, Pamplona-Iruña: Pamiela, 2000, edo gero aztertuko dugun, Urzainqui eta Olaizolaren *La Navarra Marítima*. SERRANO IZKOK bibliografia eguneratzen du beste artikulu batean: “Urtebeteko uelta bibliografikoa Nafarroako kon-kistaren inguruan”. In: *1512. Euskal lurrealdeak eta nafar Estatua. Los territorios vascos y el Estado Navarro*. Actas del II Congreso de Historiadores de Navarra. Donostia: Txertoa, 2011; 419-423 orr.

20. Garai hartan Frantzian sorturiko historiografiari buruz, oinarrizko lana GOYHENETCHE, Jean. *Les basques et leur histoire. Mythes et réalités*. Donostia-Baiona: Elkar, 1993. Bertan (53 orr. eta hurr.) auto-reak bi garai ezberdinzen ditu. Lehenengoan (1570-1612) bost historialari azpimarratzen ditu: hiru Al-bret eta Borbondarren historialari ofizial gisa har daitezkeenak (Bordenave, Chappuys, Olhagaray); beste bi (L'Hostal eta Favin) erregearen funtzionarioi bezala. Bigarren fase batean, Oihenart kokatzen du Goy-henetchek, baina autore guztiaik, garai luze batean zehar, Nafarroako arazoaren inguruan aritu zirela esanez. Are gehiago, bere konklusioa da euskal Frantzian ez dela izan euskal historiografia bat, garai haieitan, baizik historiografia “navarriste” bat (65 eta 67 orr.).

klasiko horrek bere garaian izan zuen toki eta funtzioa modu egoki eta arrazoituan baloratzeko tresnak eskaini dizkigu Floristanek eta eskura daukagu abiapuntu sendoa<sup>21</sup>.

#### **2.4.2. Juan María Sanchez Prietok eskaintzen duen balantze berria, 1841-2011 epea hartuz**

Artikulu honen hasieran nion bezala, zeregin historiografiko luze bat aztertzerakoan, balio berezia dute, nola ez, eta aurreko puntueta egin dugunaren harian, bereziki funtziobaloratzaila hori bete duten idazlanek, historiografiaren historia egiteko sortu direnez gero. Ikuspegি horretatik badaukagu, zorionez, J. M. Sanchez Prietok duela gutxi argitaratutako artikulua<sup>22</sup>. Ez da fruitu isolatua, beraren aurreko ikerketa eta analisietan oinarritzen baita<sup>23</sup>. Merezi du, artikulu horrek es-kaintzen duen zehaztasun eta sakontasunagatik, txosten honetara modu zuze-nean ekartzea.

Sanchez Prietok hartzen duen abiapuntua, Real Academia de la Historia Nafarroari buruz Joaquín Traggiari agindu zion ikerketa da, *Diccionario geográfico-histórico de España* delakoan ‘Navarra’ hitza berak garatu baitzuen. Traggiak ez du ukatzen Nafarroako historian, konkista ondoren, errege eta erresumaren arteko erlazioa ohiko paktismoan oinarritu zenik<sup>24</sup>. Hortik aurrera, XIX. mendeko egoera eta bilakaeran benetako eragina izan zutenen artean autore bat hautatu beharra izango balitz, Sanchez Prietok ez du zalantzak Jose Yanguas y Mirandaren izena emateko<sup>25</sup>. Yanguasek parte hartze bikaina izan zuen 1839ko urriaren 25eko legearen ondoren Nafarroan hartzetako zen bide berariazkoan, handik bi urtera 1841eko abuztuaren 16ko legean, pakzionatutzat hartzetako zen hartzan, gauzatzuko zena.

Moret eta Alesonek eraikitako ikusmolde paktistaren jarraitzailetzat dauka Sanchez Prietok Yanguas. Zeregin asko bete zituen pertsonaia izan zen, baita ere historiagilea, erresumaren konkista bereziki aztertu eta baloratu zuena. Luis de Co-rreak idatzitako *Historia de la conquista de Navarra* argitaratu zuen Yanguasek, eta

21. FLORISTÁN, Alfredo. “Los debates sobre la conquista y la reconfiguración de la identidad de Navarra (1512-1720)”. In: FLORISTÁN, Alfredo (Coord.). *1512. Conquista e incorporación de Navarra. Historiografía, derecho y otros procesos de integración en la Europa renacentista*. Barcelona: Ariel (Gobierno de Navarra), 2012; 31-61 orr.

22. “Prácticas discursivas y construcción política. Debates en torno a la conquista e integración de Navarra durante los siglos XIX y XX”, (4. oharrean aipatua).

23. Bere oinarrizko ikerketa, *El imaginario vasco: representaciones de una conciencia histórica, nacional y política en el escenario europeo, 1833-1876*, prólogo, Charles-Olivier Carbonell. Barcelona: Ediciones Internacionales Universitarias, Elusa, 1993.

24. TRAGGIA, Joaquín. “Navarra”. In: *Diccionario geográfico-histórico de España, por la Real Academia de la Historia: Sección 1, comprende el Reyno de Navarra, Señorío de Vizcaya y provincias de Álava y Guipúzcoa*, tomo 2, Madrid: 1802; 56-166 orr. Iku daiteke argitalpen berria, CD-Rom batekin, Virginia TAMAYO eta Roldan JIMENOk prestatu dutena, Fundación para el Estudio del Derecho Histórico y Autonómico de Vasconia (Donostia-San Sebastián, 2005).

25. SÁNCHEZ PRIETO, J. M. “Prácticas discursivas...” op. cit.; 68-73 orr. Yanguasen ekarpena mouduso zehatzean azterten du autore honek.

argitalpen horretaz baliatu zen hitzaurre luze bat egiteko<sup>26</sup>. Bertan, Nafarroaren norabidea Espainia eta Frantziaren arteko lehiaren ondorioztat hartu zuen Yanguasek, Fernando Katolikoaren protagonismoa azpimarratuz, gatazka horretan parte hartu zuten Frantziako hiru erregeen garaikide izan zelarik (Luis XI, Carlos VIII eta Luis XII). Yanguasen iritzia nahiko garbia da arazoa osotasunean hartzerakoan: “Navarra, entregada del todo a la voluntad de dos enemigos poderosos y conquistadores, vino a ser presa del más afortunado”<sup>27</sup>.

XIX. mendearen azken hogeita hamar urteko epea hartuz, hau da, canovismoaren garaia, Yanguasek sendotutako iritzia berrikusteko gai izan zitekeen bakarrenetako bat Hermilio Oloriz izango litzateke, Sanchez Prietoren ustean<sup>28</sup>. Martín Azpilkuetaren biografia egiteko gai izan zen Oloriz<sup>29</sup>, eta Asociación Euskara de Navarra delakoan aurreko tokian egon zen<sup>30</sup>. Berak eta gainontzeko ‘Euskaroek’ eragin handia izan zuten historiografiaren norabidean. Nafarroa soilik hartu beharrean, erresuma honen ezaugarri etniko berdintsuak zeuzkaten aldameneko euskal lurralteak jarri zituzten aztergai. Horrela, “euskaroek”, aldarrikatu nahi zituzten helburu kultural eta linguistikoak lehen mailan ipini zituzten. Subjektu historikoa ikuspegi etnikoan hartuz, irizpide politiko-instituzionala, linguistiko-kulturalarekin nahasteko joera nabaria sortu zen. Hurrengo urratsa euskal nazionalismoaren esku-tik etorriko da, Nafarroan Arturo Campionek betetzen duelarik ikuspegi euskal nazionalista Nafarroaren historia egiteko joera<sup>31</sup>.

---

26. YANGUAS Y MIRANDA, José. *Historia de la conquista del reino de Navarra por el Duque de Alba, general del ejército del rey Fernando el Católico, en el año de 1512*, escrita por Luis Correa, e ilustrada con notas y con un prólogo, breve compendio de la historia de dicho reino, Pamplona: Imprenta de Longás y Ripa, 1843.

27. Ibid.: Hitzaurre luze honek 3-48 orrialdeak hartzen ditu, eta Correaren testuak 49-357 orrialdeak. Yanguasek, 45-46-47 orrialdeetan, Correaren ondoren sortutako historiografia azertzen du.

28. SÁNCHEZ PRIETO, J. M. “Prácticas discursivas...” op. cit.; 74-77 orr.

29. *Nueva biografía del doctor navarro D. Martín de Azpilcueta y enumeración de sus obras. Apuntes reunidos*. Pamplona, 1916 (reimp. facsímil, Pamplona, Jiménez Gil editor, 1998). Berritzat hartzen du Olorizek berak idatzitak Azpilkuetaren biografia, Arigitak egindakoa berriztatzen duelako. Nafarroako foraltsuna aztertu zuen: *Fundamento y defensa de los Fueros*, Pamplona, 1880; *Resumen histórico del Antiguo Reino de Navarra* (1887), reed. San Sebastián: Fundación para el Estudio del Derecho Histórico y Autonómico de Vasconia, 2009.

30. NIEVA, José Luis. *La idea euskara de Navarra, 1864-1902*. Bilbao: Fundación Sabino Arana; Euskara Kultura Elkargoa, 1999.

31. Campionen biografia (1854-1937) eta idazlanak modu sistematiko, sakon eta zorrotzean azertzen ditu, Juan Cruz ALLI ARANGUREN, “Arturo Campión y Jayme-Bon, escritor y político (1854-1937)”. In: *Notitia Vasconiae. I Symposium: El Derecho Histórico de los Territorios de Vasconia: Protagonistas y artifices*. Donostia-San Sebastián: Euskal Herriko Zuzenbide Historikorako Institutua, 2002; 469-547 orr. Campionen bilakaera ideológico eta politikoa zehaztasunetaz azertzen du Allik. Artikulu honen helburuetarako aipagaria da nola izan zen Asociación Euskara de Navarrako kidea eta euskaltzale konbentzitua (485-492 orr.). Bere orientabide historiografikoan garbi agertzen du euskal naziopak (naciones baskas) nola antolatu ziren: “*El pueblo basko, en las vicisitudes de su historia que directamente nos es conocida, se organizó en diversas naciones, soberanas de sí mismas, política e internacionalmente objetivadas en otros tantos Estados. Destruídas las naciones baskas, perdura el pueblo basko...*” (Allik aipatua, 533-534 orr., Campionen *Discursos políticos y literarios*, Bilbao, 1976, 250. orr.). Campionen ikuspegi hau 1906 inguruan garbi agertzen zen, eta hortik aurrera, Allik dion bezala, euskal nazionalismora hurbildu zen Campion, (“autoincorporación” deitzen dio Allik, 535 orr.). Norabide horretan, 1923an, honela...

Campionen eta “euskaroen” aukako jarreran, eta nafartasun tradizionalari eutsiz, Victor Pradera koka daiteke<sup>32</sup>. Campionekin lehia bizian egon zen, eta, horren ondorioz, esan daiteke batak eta besteak Nafarroaren historiarenean interpretazio ezberdinak planteatu zituztela. Praderaren ikuspegitik, Champion eta euskal nazionalistek proposatzen zituzten interpretazioek, Nafarroa lurralteko zabalago batean murgilduta geratzearen arriskua zekarren. Zentzu horretan, euskal nazionalismoak nolabaiteko inkorporazio berri bat ekarriko lukeela zion Praderak. Nafarroaren etorkizuna “Bilboko bulegotan” erabakia izateko arriskua ikusarazi nahi izan zuen autore honek, eta arrisku horren aukako erreakzioa beharrezkoztat hartu zuen.

Eztabaidea honek, 1930 inguruan izan zuen bere eragina Estatutua sortu eta garatzerakoan. Gauza ezaguna da ez zuela arrakastarik izan lau lurrealdeentzat Estatutu bera aplikatzeko proposamenak (Lizarrako Estatutua)<sup>33</sup>. Nafarroaren etorkizuna paktismo ohikoan kokatzea lortu zuten Praderaren jarraitzaileek, Eladio Esparza buru zelarik. Horrela, bide politiko eta ideologiko berezi bat ekin zioten. Nafarroak beti paktuak egin dituela Estatua-rekin, zioten, Champagneko dinastiaren garaitik hasita. Beraz, historian zehar izan diren aldaketek ez lukete kalteztuko erresumaren oinarrizko natura. Aldaketa dinastiko bakoitzean, Erresumaren jarrera etengabekoa, legeak dinastia berriaren aurrean eta aurretik jartzea izango litzateke, “...antes fueron reyes que leyes” esaldiaren edukia gauzatuz. Erregeek, Nafarroako trou-nura igotzerakoan, bertan aurkitzen zuten legedia (“no entraban dando sino recibiendo” esango dute Bizkaian) onartu behar zuten, eta aldaketak ezartzekotan, honerako zirenak soilik ameti zitezkeen: amejoramendu edo hobekuntzak. Paktuaren beste aurpegia zen, halaber, leialtasuna eta goi mailako entearekin, hau da, Espaniar Monarkiarekin, kolaboratzeko borondatea.

---

... mintzatzen zen euskal eta nafar etnia eta antolakuntza politikoaz: “Los Baskones se nacionalizaron en forma de Reino de Navarra. Durante un tiempo difícil de aclarar, baskón y nabarro fueron términos equivalentes. El edificio histórico se asentaba sobre la base étnica, en cuanto ésta se exterioriza mediante el idioma, las costumbres, las instituciones y la conciencia nacional colectiva” (Allik aipatua, 545 orr.). Sánchez Prieto ere, op. cit. 80 orr., azpimarratzen du nola Campionek, Moreten ildoan jarri, eta Olorizén influentziapean, Nafarroa euskal etniaren osagai bat bezala ikusten zuen, eta horren barnean nola izango den “una nacionalidad particular cuya forma política fue el Reino pirenaico” (Sz. Prieto aipatua, Campionen *Navarra en su vida histórica*, liburutik). Hortik ondorioztatzen du Campionen jarrera historiográfico pertsonal: «Cuanto contribuyó a desenvolver, perfeccionar y conservar esa vida, me ha parecido bueno y laudable: al revés, cuanto propendió a disminuirselo, enflaquecerlo, ponerla en peligro o destruirla, execrable y nefasto» (Sz. Prieto, op. cit., 80 orr. eta 65 oharra).

32. SÁNCHEZ PRIETO, op. cit., 80 orr. 67 oharra, agerrazaten du nola Pradera jartzen den Campionen aukakotasunean, *Por Navarra, para España*, leloa zabalduz. Baino Praderak ez dio uzten paktismoaren tesia. Alderantz, adostasun hori izango da Espainiaren batasunaren giltza, bere *Pequeña historia del reino de Navarra*, 1940ean argitaratutako liburuan. Eladio Esparza are harantzago joango da bide horretan, zuzenean defendatuz *El destino hispánico de Navarra*, delako liburuan izenburuak berak adierazten duena: Antso Handia Espainiaren batasunaren aintzindaria izan zela. Hari honi jarraitu zitzaien fransismoaren garaian, eta horren azalpen bat Sánchez Prieto dakarkigu (op. cit. 83 orr., 78 oharra) José María Pemanek 1950ean idatzitako honetan: «Navarra quedó unida para siempre al resto de España, y tan ‘unida’ con alma y cuerpo, que en ninguna región se conservaron mejor que allí las puras virtudes viejas del carácter español».

33. SÁNCHEZ PRIETO. “Prácticas discursivas ...”, 81 orr. ESTORNÉS ZUBIZARRETA, Idoia. *La construcción de una nacionalidad vasca. El Autonomismo de Eusko Ikaskuntza (1918-1931)*. San Sebastián: Eusko Ikaskuntza, 1990; 445 orrialdea eta hurrengoak.

Norabide horren jarraipena, Nafarroaren egoera errekonozitua eta babestua mantentzearen aldekoa, Jaime Ignacio Del Burgok islatzen du oso garbi, Sanchez Prietoren iritzian. Gauza ezaguna eta jakina da berak bideratu zuela 1982ko LO-RAFNA (Ley Orgánica 13/1982, de 10 de agosto, de Reintegración y Amejoramiento del Régimen Foral de Navarra), hobekuntza berri bat izango balitz bezala ezartzeko tesiaren ildotik. Merezi du lege honek hitzaurrean diona kontuan hartzea: zaila da, benetan, hain lerro gutxitan laburtea Nafarroako historia eta bere bila-kaera konstitucionala, paktismoaren tesi tradisionalari helduz<sup>34</sup>:

Ley Orgánica 13/1982, de 10 de agosto, de Reintegración y Amejoramiento del Régimen Foral de Navarra. PREÁMBULO: Navarra se incorporó al proceso histórico de formación de la unidad nacional española manteniendo su condición de Reino, con la que vivió, junto con otros pueblos, la gran empresa de España. Avanzado el siglo XIX, Navarra perdió la condición de Reino, pero la Ley de 25 de octubre de 1839 confirmó sus Fueros, sin perjuicio de la unidad constitucional, disponiendo que, con la participación de Navarra, se introdujera en ellos la modificación indispensable que reclamara el interés de la misma, conciliándolo con el general de la Nación y de la Constitución de la Monarquía. A tal fin, se iniciaron negociaciones entre el Gobierno de la Nación y la Diputación de Navarra y, en el acuerdo que definitivamente se alcanzó, tuvo su origen la Ley Paccionada de 16 de agosto de 1841, aprobada por las Cortes de la Monarquía española. [...] De ahí que, recién entrada en vigor la Constitución, se promulgara, previo acuerdo con la Diputación Foral, el Real Decreto de 26 de enero de 1979, con el que se inició el proceso de reintegración y amejoramiento del régimen Foral de Navarra.

### **3. Gaurko egoera historiografiko eta bi adar bereizteko jarrera**

#### **3.1. Jaime Ignacio Del Burgok egindako azken balantzea: topikoen aur-kako topikoak**

Esanguratsua da oroitzapen historikoa lantzen duen liburu batek, Santiago Leoneren *Los Fueros de Navarra, lugar de la memoria* delakoak, Jaime Ignacio Del Burgori ematen dion tokia eta garrantzia. Del Burgoren obra historiografikoa sinboloaren kategorian jartzen du Leonek, eta hain ongi finkatua dagoen korronte historiografikoaren buruzagitzat hartzen du<sup>35</sup>.

Gauza ezaguna da, Del Burgoren obra zein luze, kopurutsu eta aberatsa den, alor ezberdinak landu izanaren bertutez. Senitarteko tradizioari jarraituz, oso gazte

34. TAMAYO SALAVERRÍA, Virginia. *La autonomía vasca contemporánea. Foralidad y estatutismo, 1975-1979*. Vitoria: IVAP, 1994; 577 orr. Ikus BARAIBAR, Álvaro, egindako síntesis, (J. M. SÁNCHEZ PRIETOren hitzaurarekin) *Extraño federalismo: la vía navarra a la democracia, 1973-1982*. Madrid: Centro de Estudios Políticos y Constitucionales, 2004; 340-344 orr.

35. Leonek ere (*Los Fueros de Navarra como lugar de la memoria*, op. cit., 263-273 orr.) Sanchez Prietok bezala, Pradera eta Eladio Esparzaren oinordetza bidean jartzen du Del Burgo (271 orr.), eta ez du zalantzairik Del Burgoren tesiak eraginkortasun lehen mailan kokatzeko, egungo nafar egoeran (edo liburua argitaratu zen urtean, 2002an, behintzat). Are gehiago, Del Burgoren eragina nafar historiaren interpretazioan erabatekotzat dauka Leonek: historia, politikaren tokia hartu duelakoan dago.

hasi zen Jaime Ignacio bere argitalpenak kaleratzen<sup>36</sup>. Oso ongi azaldu du, bestalde, saiakerak eta lan historiografiko zehatzak konbinatzen daukan trebezia. Halaber, ikusi dugun bezala, izugarrizko arrakasta izan du Nafarroako norabide historikoa eta politikoa bat egiteko urratsak ematerakoan: LORAFNAREN hitzaurrea oso esanguratsua da, ikusi dugun legez, historia eta politika nola batu daitezkeen ikusterakoan.

Artikulu honen helburuetarako, oso egokia da Del Burgoren azken liburuaren bi alderdiak bereiztea<sup>37</sup>. Batetik bere aita Jaimek amaitu ez zuen liburua (Nafarroako historiaren sintesi bat) burutzea da Jaime Ignacioren helburuetako bat. Bestea, egi-leak modu literalean esaten duen bezala, bere iritza ematea da, 1512ko bosgarren ehun urteko urturrenenak ekarriko zuen lehiaz jabetzen zenez gero<sup>38</sup>. Beraren beste aldean aurreikusten du historiografia ‘aberzale’ delakoak sortu duen iritzi sorta<sup>39</sup>. Lehengo, 1993an, M. P. Huicik egindako gai zerrendaren estiloan, Del Burgok konkista militarraren arazoa jartzen du lehen mailan, eta ez du ukatzen Albako Dukearen tropak erresuma inbaditzean efektu traumatikoak sortu zirenik, baina ez du uste kalte horiek maila apal batean baino harantzago kokatzea egokia denik<sup>40</sup>. Okupazioaren ondoren izandako errepresioa, dio Del Burgok, ez zen izan kontrol berezi bat ezartzeko, etsai boteretsu baten aurka irabazitako lurraldeak mantentzeko baizik.

Del Burgok oso garbi azpimarratzen du nafar populazioak zeukan bake eta orekaren premia, egonezin hain luzearen amaiera desiratzen zuelako ezer baino gehiago. Beraz, eta hau da autore honek sarritan errepikatzen duen tesia, ezin da esan herri mailako populazioak etekinik atera ez zuenik: lehia goi mailakoa zenez, errege dinastien artekoa, herriak bakea nahi zuen, edozein dinastiarekin<sup>41</sup>. Nafar herriak, azken batean, bakea eta instituzioen jarraipena ikusi zituen bermatuta. Bakea nahi zuten herritarrek, baina instituzioei ere garrantzi berezia ematen zioten. Nafarroako erresumak, bere egitura mantentzean, etorkizunari begira hazkunderako bermeak bergartenu zituela dio Del Burgok, aurrerantzean Espaniako egituraren bere burua kokatuz, eta egoera faboragarria lortuz<sup>42</sup>. Tesi hau Del Burgoren funtsezko-

36. DEL BURGO, Jaime Ignacio. *Origen y fundamento del Régimen Foral de Navarra*. Pamplona: Aranzadi; 1968.

37. DEL BURGO, Jaime; DEL BURGO, Jaime Ignacio. *Historia de Navarra. Desde la prehistoria hasta su integración en la Monarquía española (S. XVI)*. Pamplona: Ediciones Académicas; 2012.

38. Liburuaren 639 orrialdean hasten da: “Epílogo. Después de 1515 ¿ Muerte o resurrección del reino de Navarra”, kapitulu luzea, Jaime Ignacio del Burgok idatzitakoa. Baino 628 orrialdean hasten da, “La batalla de la historia” epigrafean (XXXIX kapituluan) Jaime Ignacioren testua, 1512 urtearen bosgarren ehun urteko aipatzen baitu, indarrean dagoen lehia historiografikoa aztertz, eta bosgarren ehun urtekoak dakarrena azpimarratuz.

39. Ikus 628 orrialdea eta hurrengoak: 628, “... la batalla de la historia ...; la conmemoración es errónea: no hay punto final sino punto y aparte ... la mayoría de la población respiró aliviada ...”; 629, “no nueva colonización lingüística y cultural ... se mantuvo el afecto por la lengua ...”.

40. Ibíd., 367: Paseo militar, sin derramar sangre. La violencia vendría después; 420: “los autores nacionalistas han pretendido deformar ...”.

41. Ibid. 597 orr. eta hurrengoak: XXXIX kapitulua.

42. Ibid. 467: “No hubo anexión territorial ni se constituyó un solo estado, pues Navarra permaneció como una realidad jurídico-política distinta e independiente”; 468: “Los falsarios aberzales repiten que Castilla aplastó Navarra y acabó con su independencia nacional. Hora es de desagraviar a Castilla”;...

enetakoa da. Horrela, eta hona hemen aurrekoaren ondorioz datorren beste tesi, Fernando Katolikoa eta Karlos Habsburgotarra Nafarroako tronuaz jabetze haiiek, dinastia aldaketa hutsak baino ez zirela izango dio. Hauetako tesi bakoitza, Del Burgok historiografia ‘aberzaleak’ esaten duena eta, “esango duenaren” aurrean kokatzen du<sup>43</sup>. Beraz, Del Burgok ametitzen du korronte euskal nazionalista horren eragina, eta horregatik aurreratu nahi izan du erantzun bat ematea. Betidanik mantendu duen jarrera, ordea, garbi agertzen da: bere iritzian konkista eta inkorporazioa onerako izan ziren, eta gertatu zena orokorrean positiboa izan zen.

### **3.2. Euskaldunen historia nazionala. Itsas Nafarroa (Navarra Marítima) eta korronte berriztatzaileak**

Subjektu politikoaren aldaketa, Nafarroaren tokian Euskal Herria ipiniz, ikusi dugu ‘Euskaroen’ eskutik eterri zela, Olorizen eta Campionen ekarpenak zirela medio. Esan genezake joera hori indarberritu egin dela azken urteetan, eta historiografia-ren adar berriztatzaile bat sortu dela, baina aipaturiko “euskaroen” tradizioari helten diona, funtsezko ezaugarria mantentzen duelako: historiaren protagonismo kolektiboa euskaldunengan finkatzea. Subjektu historikoa, erresuma definitu bat izan beharrean, hots, ikuspegi politiko eta juridikotik modu garbian azter daitekeen erresuma, hizkuntza baten hiztunek osatzen duten taldea izango da: euskaldunak. Horrela, hau da, historia politikoa eta linguistiko-kulturala bilduz, berriro Herri Euskaldunaren historia politikoa gorpuzteari ekin zaio. Horixe izango litzateke korronte honen ezaugarririk aipagarriena.

Planteamendu hori oso garbi plazaratu zuten Tomas Urzainqui eta Pedro Olazolak, *La Navarra marítima liburuan* (lehen argitalpena, 1998)<sup>44</sup>. Zuzen zuzenean agertzen zuten egileek liburuaren helburua: “demostrar la realidad incuestionable de la Navarra marítima”. *Itsas Nafarroa*, esamolde metaforikoan euskal esparru nazionala adierazteko modu bat zen, zeren liburuaren helburuen artean aipatzen da abiapuntu bat jarri nahi izatea: “el análisis de la formación nacional en este territorio”. Bide horretan lortu nahi zen: “... redescubrir los firmes vestigios de la existencia del Estado nacional de los vascos, y, en definitiva, valga el símil, lograr un cambio en la dirección del timón”<sup>45</sup>. Berreskuratzera lana, beraz, zeren ikusi ditugu jarrera honen aurrekaria. Erabilitako iturriei buruz, Juan José Larreak egindako iruzkinean garbi agertzen zen non kokatzen ziren zorrak<sup>46</sup>.

---

... 469: “La inquina anticastellana que revelan algunos autores de la abundante historiografía nacionалиsta o aberzale de los últimos tiempos carece de justificación”.

43. Adibidez, 564 orr.: “los encerrados en Maya se habían convertido en una partida de salteadores, muy diferente a la romántica imagen que ahora se pretende darles como luchadores por la independencia nacional de Navarra”.

44. URZAINQUI, Tomás; OLAIZOLA, Juan Mª. *La Navarra Marítima*. Pamplona: Pamiela; 1998.

45. Ibid. 18 orr.

46. LARREA, Juan José. “La Navarra Marítima edo historiagintza zer ez den”, *Hika*, 165 zka. 2005eko apirila. Bertan, Larreak azterten zuen liburuaren balio berritzalea eta “ezkutuan zeuden egi historikoak agerrazteko gaitasuna”. Larreak egiten duen azterketak liburuaren egileek iturriak erabiltzeko...

Bide horretatik, Nafarroa dago oinarritzko leku batean<sup>47</sup>. Euskaldunak jende multzo bakarra eta trinkoa izango balitz bezala definituz, beren historia osoan zehar, Nafarroako historia politikoan kokatzen dira gertakizun funtsezkoenak. Garai urrun batean, hala nola Antso Handiaren garaian (XI. mendearen hasieran), zeuden muga lurraldetarren barnean euskaldungoaren multzo osoa edo gehiena sartu ahal izateko argudioaz baliatuz, hedapen hain zabala hartu zuen ‘monarkia piri-nioarra’ azpimarratzen da. Zentzu horretan, *La Navarra Marítimak* ez du planteatzen Nafarroako historia hutsa, baizik euskaldunen historia nazionala. Euskaldunek lortutako emaitza nagusienetako bat izaki, nafar monarkia horrek, Euskal Estatu-tzat ere hartzen den horrek, hain zuzen ere, jasango zituen kalteak edo ‘gutxitzeak’ azpimarratuko dituzte korronte honetan kokatzen diren historialariet. Gutxitze horretan badira, ordea, bi kolpe bortitz eta erabakigarriak, 1200. urtean emandakoa bat, eta 1512an bestea<sup>48</sup>.

Nire iritzian, *Navarra maritimaren* ezaugarri nabariena hauxe izango litzateke: garbi azaldu nahi izatea nola moztu zen Nafarroaren historian, erresuma bezala zegokion norabidea. Gorputz politiko eta juridiko sendo bat lortu ondoren, Antso Jakintsuaren garaiko Nafarroa estatu europar goi mailakotzat hartzen baita, XII. mendearren amaieran, Nafarroak kanpoko eta kanpotik eragindako ekimenen ondorioz, galdu egingo zuen bere lurraldearen mendebaldeko zati bat, gutxiagotze edo aminorazio prozesuaren baitan. Horrela, Urzainquik eta Olaizolak nolabaiteko bitasun bat marrazten dute: alde batetik bere muga finkoak eta ‘naturalak’ dituen Nafarroako erresuma; bestetik Gaztelako erresuma, sarritan, Nafarroarekin kontrajarriz, “feudaltzat” hartzen dena eta atlantiar ertz hora berea egin nahi duena. Gaztela izango da garaile, Alfontso VIII.ak Gipuzkoa eta Arabako alderdi ekialdekoa eta itsasokoa bereganatu zuenean, 1200ean, Nafarroaren gutxitze prozesuan urrats handi bat emanez.

Aminorazio hori, ordea, kanpoko eraso bortitzten ondoriozkoa izan zenez gero, bertakoen borondatearen aurkakotzat hartzen da. Beraz, ezin da onartu lurralte hauet emandako urratsak, besteengan integratzeko aukera honetan eta gero eto-

---

... moduari begiratzen dio gehienbat, oinari garbi bat hartuz: “Horrelako baieztapen borobilek baldintza bat bakarrik bete behar dute erabilak izateko, eta besteok onart ditzagun: egia izatea, egia baieztape-nok bezain borobila. Horrela ote da? Emaiegun begiratu bat ondorengō pasarteer”. Segidan liburuaren dozena erdi pasarte aztertzen zituen Larreak, zein itunietatik hartuta zeuden ikusteko, eta ea benetan autoreen jatorrizko hitzak ziren edo aureko historiografiak eskaintako produktioan agertzen ziren. Larrearen konklusioak osoa garbiak ziren: “Idea, tesi, interpretazio asko eta asko ezagunak direla, zaharrak, eta inongo muzinik egin gabe historialari anitzek, hemengoek eta hangoek, eskola zaharreko instituzionalistek nahiz 70ko hamarkadan gallendutako marxistek, onetsi eta irakatsi dituztela, Valladoliden zein Gasteizen. Eta ez bigarren mailako ideiak, baizik eta, gorago aipatu ditudanak bezala, ikuspegí berritzailearen zutabe nagusiak direnak”.

47. Anacleto de ORTUETAK finkatutako tesia heltzen zaio, ikuspegi honetatik (ikus gero Ortuetari buruz adieraziko duguna, bereziki 51. oharra).

48. ESARTE, Pedro. *Vasconia en el siglo XI. De Reino de Pamplona a Reino de Navarra*, Pamplona-Iruña: Pamiela, 2004. Ikus 15 orrialdean: “El presente trabajo, aun tratando sólo de la violencia y expolio de todo género ejercidos contra Navarra de los siglos XI y XII –similares a los padecidos posteriormente contra su soberanía– refleja la materia viva existente del derecho de los navarros a regirse por sí mismos y en su propia tierra, sin necesidad de permisos ni componendas”.

rriko zirenetan, bertako biztanleen borondatezkoak izan zirenik. Horrela, 1200ean gertatutakoa ez zen “entrega voluntaria” izan, inondik ere, baizik konkista militar bat, Gaztelako erregeak eragindakoa bere helburu pertsonalak lortzeko asmo garbian<sup>49</sup>.

Norabide honetan kokatzen den korronte honek, ez du inongo oztoporik 1512ko konkista “aminorazio” prozesuan emandako beste urrats bat izan zela adierazteko. Modu objektiboa hartuz, eta 300 urteko tartea dagoela ahantzi gabe, ezin da ukatu 1200ean Nafarroak lurraldearen parte bat galdu zuela<sup>50</sup>, erasotzaile baten ekintza militar baten ondorioz, hots, konkistaz, eta 1512an ere konkistatua izan zela, kanpotik sartutako indar erasotzaile oso ongi antolatutako baten poderioz. Baino, eta hor dago gakoa, data eta egitate erabakigarri hauek azpimarratzerakoan, garai bakoitzaren ezaugarriak bereiziz jokatu behar da, kontuan hartuz eta garrantzi handia emanet bi garaien artean dauden ezberdinotasun eta ezaugarriei.

Euskaroeek, Campionek, Ortuetak<sup>51</sup>... korronte honetan kokatzen diren autoreengan eragin handia izan zutela garbi agertu izan digute, ikusi dugun legez, M. P. Huicik<sup>52</sup> edo Sanchez Prietok<sup>53</sup>. Hau onartuz, beharrezkoa iruditzen zait, ordea,

49. Hauxe zen Juan Antonio LLORENTEren tesia. Ikus daiteke bere obra, *Noticias históricas de las tres provincias vascongadas de Álava, Guipúzcoa y Vizcaya*, I, Madrid, 1806; 195-197 orrialdeetan Llorentek oso garbi adierazten du Gipuzkoak eta Arabako parteak Gaztelako erregeak bereganatu zituenean, (197 orr.): “desde entonces poseen esta tierra los reyes de Castilla por riguroso derecho de conquista”. Ez da harritzeko, beraz, Llorentek esatea lurralde hauek ez zirela beren borondatez integratuak izan, Garibayk adierazitakoaren aurka (202 orr. eta hurrengoak). Alegatzen ziren agiria apokrifoa zirela dio Llorentek. Zentzu berean, Arriagako kofradiaren inkorporazioa ez zen izango adostasunez egindakoa (*ibid.*, 278). 1200ko konkistari buruz azken txosten bat, Idoia ARRIETAK idatzitakoak, non Gipuzkoak konkistatua izatearen tesia defendatzen den (1512. *Euskal lurraldeak eta nafr Estatua. Los territorios vascos y el Estado Navarro*. Actas del II Congreso de Historiadores de Navarra, Donostia: Txertoa, 2011, 227-248 orr.).

50. *Guipúzcoa y el reino de Navarra en los siglos XIII y XIV*, ed. a cargo de José Luis ORELLA. Cuadernos Universitarios Departamento de Historia, nº 4, Universidad de Deusto, San Sebastián, 1987. MONREAL, Gregorio. “1200, una fecha significativa en la evolución de Vasconia”. In: *Revista International de Estudios Vascos*, 45, 2 (2000) 421-424 orr.

51. ORTUETA Anacleto de. *Nabarra y la unidad política vasca*, Barcelona: J. Horta, 1931. Ortuetaren abia-puntua honelako esaldia da (9 orr.): “La personalidad nacional del Pueblo Vasco es innegable”. Lurralde jakin batean kokatzen du Euskal Herria: “El territorio habitado hoy por los vascos ...”. Herri horren definizioa ez dago lurraldean, baizik hizkuntzan, dio Ortuetak, baina lurraldearen tamaina eta hedadura ez du aldazten autore honek, egiten duen ibilbide historikoan zehar. Oso garbi adierazten du, bestalde, bere liburuaren helburua: *Este trabajo está dedicado a estudiar si en la época histórica ha existido la unidad política de la Nación Vasca ... reparar el daño que le han ocasionado quienes sostienen que el Pueblo Vasco, entregado a sí mismo, no ha sabido constituir su unidad política*” (*ibid.*, 10 orr.)

52. HUICI, M. P. *En torno a la conquista ... op. cit.* 42 orr.: “Mucho más políticos que historiadores, quiero citarlos. Son los Iturre y Suit, Arturo Campión, Hermilio Olóriz, etc. aficionados a la Historia, y partiendo de su amor a Navarra y a los fueros, politizados e intuitivos, condenaron la conquista a ultranza, pero en modo alguno con bases sólidas y ciertas”. Autore hauek eta beraiek sortutako historiografía, Hui-cik nazionalistatzat hartzen ditu.

53. “Prácticas discursivas ...” [cit. 4 oharrean] 81 orr., 69 oharra, non Sánchez Prietok lotzen du Ortuetak eta bere, “empeño de conjugar a Sabino Arana y Campión”, XIX. mendearen azkenaldera sortutako tesi haienak. Beraz, Campión-Ortuela-Aranaren itzulpen edo birmoldaketa bidean koka daitezke, adibidez, Urzainqui eta Sorauren monografiak. Ikuze zein modu antzekoan errepikatzen zituen tesi hauek, Jose Antonio Aguirre lehendakariak, 1946an Jemeingo Zeferinori idatzitako gutun batean. (MARTÍNEZ GÁRATE, Luis. “Reflexión sobre la historia: una carta del lehendakari Aguirre”. In: 1512. *Euskal lurraldeak eta nafr Estatua. Los territorios vascos y el Estado Navarro*. Actas del II Congreso de Historiadores de Navarra. Donostia: Txertoa, 2011, 435-447 orr.). Agirre tesi “pirineoarraren” alde oso garbi...

beste autore bat aipatzea, ideia eta eskema hauek oso garbi azaltzen asmatu zuena, hain zuzen ere: Manuel de Irujo. Inglaterran zegoelarik idatzi zuen *Inglaterra y los vascos*, liburua, 1945ean argitaratua<sup>54</sup>. Irujoren liburu honen helburu nagusia izan zen lehen karlistadan Inglaterrak izandako parte hartzea frogatu eta aztartru ahal izateko zenbait agiri argitaratzea. Liburuaren lehen partean, ordea, Irujok euskaldunen historiarekin urrats nagusienak oso garbi marrazten ditu, euskaldunak bere historian zehar talde bakar eta trinkotzat hartuz, eta populatu izan dituzten lurraldetako guztia euskal biztanleen eremu amankomun bezala aurkeztuz. Esan genezake Irujo Campionen ildoan kokatzen dela, bere garaiko egoerara ekarritz iraganaren zama harik eta handiena. Ez du inongo ahaleginik egiten presentismoa ekiditeko, eta oso erraz jotzen du “gaur atzo bezala...”<sup>55</sup> eta horrelako antzekotasun bideak jorratzera. Cisneros kardinalaren portaera, adibidez, “encuentra cierta similitud con el trato impuesto por Hitler a los países ocupados del centro-oriente de Europa”<sup>56</sup> esanez.

Horrelako konparazioak eginez, prosa izugarri indartsua erabiliz, irakurlea discurso disdiratsu baten murgiltzeko bitarteko guztiak jartzen ditu Irujok. Historia europearra, española y nafarroa ondo ezagutzeaz baliatuz, oso modu egokian, saiakera estiloan, noski, aurkezten digu Irujok bere kontzepcio historiko osoa. Sintesi mamitsuak sortzeko gaitasuna agertzen du behin eta berriro, baina datu zehatz anitz ekarriz. Horrela, Irujok oso garbi definitzen ditu Euskal Herriak jasan dituen jipoien datak: 1177-1200; 1512 eta 1839<sup>57</sup>. Oso modu zehatzean definitzen ditu, baita ere, hondamen horien bultzatzaileak: “...los castellanos no dejaron hasta partir el viejo solar de los vascos por los Pirineos...”<sup>58</sup>. Hondamen eta lur galtze bide horretan, Irujok arreta berezia jartzen dio, kontuan hartuz Inglaterrak euskaldunekin izandako erlazioa aztertzen ari dela, 1177an Inglaterrako Enrike II.ak emandako ebazpen edo erabaki arbitralari<sup>59</sup>, Gaztela eta Nafarroaren arteko gatazkaren konponbiderako izan beharrean, nafar erresumaren kalterako, Irujoren iritzian, izango zena, Nafarroak Errioxa, Bureba eta Ebro ibaiaren goi aldeko lurrak galdu zituelako ebazpen horren ondorioz<sup>60</sup>.

---

... azaltzen da: “no quiero nada con León ..., me siento fundamentalmente pirenaico, porque allí, en sus montañas y en todas sus estribaciones, el pueblo vasco unido resistió siglos contra Roma y contra Carlomagno, contra D. Rodrigo y contra Abderramán, contra Alfonso VI el Emperador leonés y contra Alfonso VIII el artero” (445 orr.).

54. IRUJO, Manuel de. *Inglaterra y los vascos*, Buenos Aires: Editorial Vasca EKIN S.R.L., 1945 (argitalpen hau erabili dut artikulu honetan). Argitalpen berria, Ed. Txalaparta, Tafalla, 2004. Liburu honekin lotzen den bestea, IRUJO, Manuel de, *Instituciones jurídicas vascas*. Primera edición, Buenos Aires: 1945. Reimpresión, Tafalla: ed. Txalaparta, 2006, con prólogo de Andrés Urrutia.

55. Ibid., 63 orr.

56. Ibid., 62 orr.

57. Ibid., 13 orr.

58. Ibid., 31 orr.

59. Ibid., 31-33 orr. Antso Jakintsua goraipatzen du Irujok, 35 orr., “... tal vez el político vasco más destacado de la historia, el rey de Navarra que vio el mar”.

60. Ibid., 33 orr. Bide batez, 1939an Txekoslovakiak jasandako kalte eta gutxitzearekin konparatzen du.

Hurrengo urratsa, Gaztelaren mendean erortze hartan, 1200an emango zen, Alfontso VIII.ak Araba eta Gipuzkoako ekialde parteak bereganatu zituenean, nahiz eta Antso Jakintsuari leialki eusten ziotenek erresistentzia handia jarri, Vitorian eta Durangon. Gaztelarren asmoak bete ziren eta, Irujoren esanetan, Malato zuhaitza hiltzeko zorian geratu zen<sup>61</sup>. Anaien arteko borrokatzat hartzen du Irujok gudaldi hori, 1512 eta 1839koak bezalaxe. Predeterminismoaren menpean analisia ipiniz, 1512 eta 1524 urteen arteko gertakariekin konkistaren emaitza ekarriko zuten, erre-sumaren aurkako hainbat faktore elkartu zirenean: "... un tejido de contradicciones, apetencias, inmoralidad y disputa, entre las cuales, Fernando el Católico, el Cardenal Cisneros y Carlos V sucesivamente, acabaron de consolidar la conquista de Navarra". Irujoren iritzian gertakari hauek oztopatu zuten Nafarroak bere bide independentean jarraitu ahal izatea<sup>62</sup>. Beraz, kanpotik etorritako indarrak izan ziren kalte aldez aurretik neurria eta prestatua ekarri zutenak, norabide historiko jakin bat, Nafarroarena, moztuz: "... le impidieron cumplir la misión transcendental que la geografía y la historia le han asignado"<sup>63</sup>.

## 4. Azken bi urteetan sortutako ekarpenak

### 4.1. Gregorio Monreal eta Roldan Jimenoren Testu historiko-juridikoen Antologia

Azken garaiko historiografian, eta bereziki konkista eta inkorporazioaren balorazio-rako baliotsuak diren ekarpenen artean, iruditzen zait bereziki azpimarragarria dela Gregorio Monreal eta Roldan Jimenok argitaratu berria duten liburua<sup>64</sup>. Nafarroako Unibertsitateko Zuzenbide Historiako bi irakasle hauek, izugarrizko lana hartu dute Nafarroaren historiaren testu juridikoen antologia luze eta sakona egiten.

Bi aletan bereizi dute argitalpena: lehendabizikoa Erdi Aroa hartzen duena, eta geroko garaiak bigarrena. Azpimarragarria da bigarren ale honetan Nafarroako konkista eta inkorporazioari ematen zaion tokia eta garrantzia: liburuaren 250 lehen orrialdeak hartzen ditu. Konkista eta inkorporazioa gai berezitzat hartuz, testuak, asko eta ongi aukeratuak, iruzkinak, hizpideak eta bibliografia agertzen zaizkigu, eta horrela, gaia zein egoeran dagoen neurteko bitarteko ezin hobea eskaintzen digute zuzenbidearen bi historialari hauek.

Lehenengo partean hartzen dira konkistaren inguruan zeuden zirkunstantzak, kanko eta barne faktore eraginkorrik, eta egitate garrantzitsuenak. Lacarrak egin zuen sintesian (*Historia política de Navarra, alegia, hirugarren alea*, 1973an argi-

61. Ibid., 35-36 orr.

62. Ibid., 66 orr.

63. Ibid., 68 orr. Del Burgok honen aurkako tesi determinista defendatzen du, *Historia de Navarra ...*, (op. cit., 602 orr.): "Con Fernando el Católico se producirá el reencuentro de Navarra con la comunidad española a la que por geografía, cultura e intereses pertenece".

64. MONREAL ZIA, Gregorio; JIMENO ARANGUREN, Roldán, *Textos histórico-jurídicos navarros. Vol II. Historia moderna*, Pamplona: Gobierno de Navarra, Colección "Pro Libertate", 2011.

taratua) oinarritzen da lehen parte hau, horrela, beste behin, konfirmatzen delarik Lizarrako historialariak merezi duen konfidantza, gai honestan ere. Bigarren partean, gaiak eskaintzen dituen hizpide klasikoak hartzen dira, bere garaian eztabaидatu zirenak, baina baita ere geroago, eta gaur egunean ere, lehia historiografiko eta akademikoan astindu direnak, hala nola egitateen kronología eta Aita Santuek emandako bulden legitimitatea. Azken hau oso modu zuzen eta zehatzean dago garatua, bulda horien testuak ere oso ongi ordenatuz<sup>65</sup>. Amaitzeko, hirugarren partean, aspektu subjektiboetan sartzen dira egileak, nafarrek izandako sentimendu eta ikuspegí kolektiboak aztertzeko testu oso egokiak gureganatuz. Gure iruzkin honestara liburu hau ekartzeko beste arrazoi bat da, dudarik gabe, eskaintzen digun bibliografia, eguneratua eta ongi banatua parte bakoitzari dagokion esparruetan.

Azertze juridikoa planteatzerakoan, konkista eta inkorporazioa zuzenbidea-ren ikuspegitik hartuta, Lourdes Soriak eskaintzen digun eskemak eta proposamen metodologikoak aukeratu dituzte Monreal eta Jimenok. Soria irakasleak, artikulu ez oso luze baina aberats eta landuan, hiru fase bereizten ditu: konkistarako eki-mena eta lehen pausoak; Nafarroako koroa Errege Katolikoak berea egin izana; Es-painiar Monarkian toki propio bat izateko Nafarroak eman zituen urratsak. Toki har-teze hori gauzatu ondoren, erresumak hartu zuen norabidea azertzen du Lourdes Soriak bere artikuluaren azkeneko partean, eta bere konklusioa da Nafarroak, orokorrean, bere helburuak pixkanaka lortu zituela, ondo asmatuz, orokorrean ere, in-tegrazioak zekarzkien abantailak bereganatzen<sup>66</sup>.

## 4.2. Azken bilkurak eta berriztapenak

**4.2.1.** Artikulu honen bigarren partean zenbait autore aipatzeko aukera izango dugu, hala nola Mercedes Galan, Rafael Garcia Perez, Magdalena Rodriguez, eta Giuseppe Galasso. Ekarpen zehatz eta bereizgarriak daude historialari hauen po-nentziak biltzen dituen liburuan<sup>67</sup>, 2011ren martxoan Iruñean ospatutako kongresu baten fruitua den horretan, non aurkitu daitezke aurreko lerroetan erabili ditugun Alfredo Floristan eta, batez ere, Sanchez Prietoren azterketa historiografikoak. Baina liburu horrek betetzen du beste alor bat, azterketa konparativoarena, hain zuzen ere, ahantz ezina horrelako gai batean. Konparazio egoki eta onuragarriak egiteko asmoan, Nafarroako inkorporazioaren garaian izandako beste batzuk jasotzen dira

65. Ibid.: 132-142 orr., adibide gisa har daiteke, beste kasu guztietan ere aplikatzen dena.

66. SORIA SESÉ, Lourdes. “El orden jurídico de la incorporación de Navarra a la Monarquía hispánica”. In: *Revista de la Facultad de Derecho de la Universidad Complutense de Madrid*, 98 (2003) 1-44 orr. [separata]; 40 orr.

67. FLORISTÁN, Alfredo (Coord.), *1512. Conquista e incorporación de Navarra. Historiografía, derecho y otros procesos de integración en la Europa renacentista*, Barcelona: Ariel (Gobierno de Navarra) 2012; GALASSO, Giuseppe. “Procesos de integración en Europa (siglos XV-XVII). Conquistas, uniones, aceptaciones y rechazos”; 19-27 orr.; GALÁN LORDA, Mercedes. “Los títulos jurídicos en la adquisición de territorios: la conquista de Navarra”; 127-166 orr.; GARCÍA PÉREZ, Rafael, “El debate sobre la incorporación de Navarra a Castilla durante la Edad Moderna”; 189-197 orr.; RODRÍGUEZ GIL, Magdalena. “La incorporación de reinos como medio hacia la absolutización de la monarquía. El caso de Navarra”; 167-188 orr.

liburu honetan, hala nola Bretaña, Bearne, Irlanda eta Napoleskoa<sup>68</sup>. Beste bilkura akademiko emankorra, Lizarran egin zen, 2011ko uztailean, eta handik sortutako liburutik artikulu honetara ekarri ditugun ponentziez gain (Alvaro Adotek ematen duen bibliografia, edo Eloisa Ramirez Vaqueroren ekarpena) badaude liburu honetan beste zenbait proposamen interesgarriak<sup>69</sup>.

**4.2.2.** Egitate hauek merezi izan zuten beste bilera zientifikoak, Euskal Herriko Historialarien biltzarra izan zen, Vianan, 2010ean. Bilkura horren ondoren argitaratu-tako liburuan daukagu Bixente Serranok egindako bibliografiaren analisia, aurreko puntu batetan aztertu duguna, eta artikulu honetan aipatzen ditugun beste batzuk ere<sup>70</sup>. Hurrengo urtean, 2011ko irailean, Oñatin egin zen bigarren bilkura. Berriro Nabarralde taldearen ekimenez, 1512ko egitate multzoari begirada bat emateko aukera izan zen, aurreko urtean Vianan jasotako fruituak berrikusi, hobetu eta osatzeko asmoan. Aipatu ditugu aurreko lerroetan zenbait autore eta idazlan kongresu hauetatik jasotakoak, hala nola, Orella, Serrano Izko eta Monteanorena.

Bigarren kongresu honetatik sortutako liburuaren aurkezpenean, argitaratzaileen adierazpenak lau puntutan laburbilduak ikus daitezke<sup>71</sup>. Oso garbi agertzen da nolako indarrarekin heltzen zaion garai eta une historiko jakinetan jasan-dako jipoiei, konkista bat baino gehiago izan zelaren teoria konfirmatuz. Horrela, paktismoaren tesiari eusteko arrazoia amaitutxat ematen dira. Hau da, Juan Antonio Llorentearen tesietara itzultzeo arrazoia ikusten dira<sup>72</sup>. Are gehiago, Errege Katolikoek zeukan aldez aurretik diseinatutako plan estrategiko baten egikaritza besterik ez zen izango 1512ko konkista, aurreko kolpeekin lotu daitekeena prozesua bere osotasunean ulertzeko. Garaiko Aita Santuen kolaborazioa garbi azaltzen du Orella irakasleak<sup>73</sup>.

68. Ibid., HERNANDO, Carlos José. “Entre Venus y Marte. Nápoles, Navarra y otras conquistas: la agresión de territorios a la monarquía de España”; 415-451 orr.; LE PAGE, Dominique. “La unión de los ducados de Bretaña y Borgoña al reino de Francia (finales del siglo XV – años 1540)”; 389-414 orr.; CANNY, Nicholas. “La incorporación de Irlanda y Escocia a Inglaterra. Una comparación con la Península Ibérica”; 453-468 orr.; DESPLAT, Christian. “1620: la unión del Bearne, de Navarra y del reino de Francia. Entre ficciones y realidades políticas y religiosas”; 469-486 orr.

69. *En los umbrales de España. La incorporación del Reino de Navarra a la monarquía hispana*, (Actas de la XXXVIII Semana de Estudios Medievales de Estella. 18 al 22 julio 2011), Pamplona: Gobierno de Navarra, 2012.

70. 1512. *Nafarroaren konkista 500 urte. 500 años de conquista en Navarra*. Euskal Herriko historialarien I. biltzarreko Aktak. Actas del I Congreso de Historiadores de Navarra, Donostia-San Sebastián: Txertoa, 2010.

71. 1512. *Euskal lurrardeak eta nafr Estatua. Los territorios vascos y el Estado Navarro*. Actas del II Congreso de Historiadores de Navarra, Donostia: Txertoa, 2011. <http://www.noticiasdenavarra.com/2011/11/29/ocio-y-cultura/cultura/txertoa-y-nabarralde-publican-el-39libro-de-actas-del-congreso-de-orientacion/>

72. ARRIETA, Idoia. “Donostiarren konkistaren agiri ezkutuaren aurkezpena: ikerketaren ibilbidea eta ekarpen historiko-kritikoa”. In: 1512. *Euskal lurrardeak eta nafr Estatua. Los territorios vascos y el Estado Navarro*. Actas del II Congreso de Historiadores de Navarra. Donostia: Txertoa, 2011; 227-248 orr.

73. Ibid., ORELLA, José Luis. “Las tortuosas relaciones de Navarra con la Santa Sede durante la conquista del reino”; 179-225 orr. Dena den, bulden inguruko eztabaidea bere tokian ipintzen du (201 orr.).

Eraso horiek jasandako Nafarroako erresumak auzoko herri euskaldunekin alor berean jasotzerakoan, oztopo handia zen hauek erasotzaileen artean kokatu behar izatea, baina hori gainditzen da parte hartze hori borondatez kontrakoa izan zela azpimarratuz<sup>74</sup>. Hortik aurrera, etorriko ziren diziplina sozial berria, bereziki emakumeengan gauzatu zena<sup>75</sup>, errepresio eta menperatze forma berriak nagusituko zirelarik, Inkisizioaren eragin zuen eta gidatzailearen bidetik<sup>76</sup>.

#### **4.2.3. Alfredo Floristanek egindako azken balorazioa: “Revisionismo histórico sobre la conquista de Navarra (1512)”**

Artikulu hau amaitzear zegoenean, pare bat ekarpen aipagarri eskuratu ahal izan ditut, aipamen bat merezi dutenak, gure balantze historiografiko honetan. Alde batetik, nafar historiografian azken urteetan sortutako jarrera berriztatzaileari buruz, Alfredo Floristanek egin duen balorazio kritikoa daukagu<sup>77</sup>.

Floristanek gaia bera aurkezterakoan, artikulu honetan jarraitu dugun Sanchez Prietok eskaini digun gida oso kontuan hartzen du. Laburpen oso egokia egiten duelakoan nago, aipatzen dituenean norabide historiografiko orokorrean zehaztu daitezkeen ekarpen baliozkoenak: Yanguas (1832); Pradera eta Campionen arteko eztabaidea (1922an, Amaiurreko laugarren ehun-urteurrena zela eta); 1978ko Transizio garaian sortutako eztabaidea: “entre fueros históricos o nuevo pacto; entre Navarra y Navarra, entre vasquismo y navarrismo, entre España y Euskal-Herría...”<sup>78</sup>. Beraz, Floristanek oso modu argi eta zehatzean planteatzen du arazoa aitzertzeko sortu den bitasuna. Alde batetik, erresumaren funtsezko jarraipena defendatzen duen jarrera. Ikupegi “kontinuista” honetan, Floristanek uste du ezin direla baloratu konkistaren ondorengo 300 urteak, epe luze horretan izan ziren al-daketak kontuan hartu gabe, baina garbi zehazten du, hitz baten laburtu behar izango balitz ezaugarririk funtsezkoena, hitz hori “paktua” izango litzatekeela.

Bitasunaren beste aurpegia identifikatzerakoan, berriro bat dator Floristan, eta neu ere nire eskema prestatzerakoan, Sanchez Prietorekin, onartuz badagoela aurreko lerrokadan ikusi dugunaren parean beste interpretazio bat, arazoaren guanean kokatzen den ezaugarri nagusia euskal nazioa dela defendatzen duena, hain zuzen ere, eta ez Nafarroako erresuma soila. Ikupegi honen lehendabiziko urratsak ere nahiko garbi identifikatzen dira: Hermilio Oloriz eta Asociación Euskara de

74. Ibid., HERRERO LICEAGA, Victoriano J.; FERNÁNDEZ MARTÍNEZ, Montserrat. “La participación de Gipuzkoa en la conquista de Navarra: el ejemplo de Azkoitia y Azpeitia (1516-1524)”; 353-386 orr.; Ibid., BASTERRETXE, Amaia, “Bizkaiko hiribilduen papera Nafarroako gerran: Bilboren partaidetza”, 137-144 orr.; Ibid., RECONDO, José Antonio. “Tolosa en la conquista de Navarra”; 65-90 orr.

75. Ibid., NAUSIA PIMOULIER, Amaia. “Mujeres sometidas, mujeres descarriadas. El disciplinamiento de la mujer navarra en el siglo XVI”; 307-352 orr.

76. Iku daiteke Joseba ASIRONek egiten duen laburpena, “Recuperando los recuerdos perdidos”; 467-476 orr.

77. FLORISTÁN IMÍCOZ, Alfredo. “Revisionismo histórico sobre la conquista de Navarra (1512)”. In: *Gobernar y administrar justicia: Navarra ante la incorporación a Castilla*, Mercedes Galán Lorda, directora. Pamplona: Thomson Reuters Aranzadi, 2012; 19-44 orr.

78. Ibid., 25. orrialdea eta 9. oharra.

Navarra<sup>79</sup>. Floristanek, gaur egun korronte honetan koka daitezkeen autore eta liburuak, agian Sanchez Prietok baino hobeto zehazten ditu: Urzainqui, Sorauren, Esarte<sup>80</sup>... Kontuan izan behar da, nire uste apalean, korronte honek “nazioa” hartu duela oinarritzat, baina ikuspegí estatalista bat erantsiz, bere tesiaren gunean kokatzen delako euskal nazio horrek estatu handi bat eduki izana, Antso Handienaren garaian lurralte sail zabalena lortuz, eta, Antso Jakintsuaren erregetzan estatu heldu baten ezaugarriak asalduz. Beraz, 1200ean jasandako jipoia ez litzateke izango “nazioa” bakarrik kaltetu zuena, baizik biak, euskal nazioa eta euskal estatua, gutxitu zituen. Dena den, Floristanek egiten duen interpretazio honen balorazioan, oso modu egokian esaten da ez dela korronte berria, baizik, eta artikulu honetan ikusi dugun bezala, sustrai zaharrak dituen landare baten berreskurapena.

Floristanek egindako azken historiografiaren neurketa honetan ez da ukatzen korronte euskal nazionalistak sortutako produkzioa. Are gehiago, aipaturiko bitasuna aurkeztu ondoren, zehatz-mehatz aztertzen ditu Floristanek Esarteren *Navarra, 1512-1530*, eta Monteanoren *La guerra de Navarra*, bakoitzari orrialde zehatzka eskainiz. Berrikuntza historiografikoa ikuspegí orokorrean eta zehatzean hartuz, Floristanek beste zenbait monografia aipatu eta aztertzen ditu: Isabel Ostolaza;<sup>81</sup> Boissonaderen liburuaren argitalpen berria, Eloisa Ramírezek egindakoa, azterte sa-rerra batekin; Santiago Leoneren Nafarroako oroitzapen historikoari buruz idatzitako liburua (*Los Fueros de Navarra como lugar de la memoria*); Fernando Chavarriaren tesi doktorala<sup>82</sup> eta Rafael García Perez Antes *leyes que reyes*. Monografia hauetako lotzen bazaizkie azken urteetan beste autore batzuk egindako ahaleginak (adibidez Mercedes Galanen zuzendaritzapean labetik atera berria den *Gobernar y administrar justicia*), konkista eta inkorporazioa prozesu luze bezala aztertzeko arrazoiak gero eta garbiago agertzen direla ondoriozta dezakegulakoan nago.

**4.2.4.** Beste “last minute” ekarpena, Fernando de Arvizuren artikulu bat da<sup>83</sup>. Zubenzidearen katedradun honek, Alduideko arazoa hain modu sakon eta zorrotzean aztertu zuenak, artikulu honetan Nafarroaren integrazioaren historia eskaintzen digu, berak atsegin duen ikuspegí jurídico eta institucional hutsa aplikatuz, baina hasieran zenbait balorazio historiografikoak ere modu zorrotzean eginez. Izen ere, Arvizuren lehenengo hitzak dira egungo eztabaidea identifikatzeko, bitasun jakin bat (funtsean Floristanek eta Serrano Izkok, esaterako, aipatzen duten berbera) badagoela onartuz, eta balorazio bat eginez. Identifikazioari dagokionez, euskal nazionalismoaren korrontea

79. LEÓNÉ, S. *Los Fueros de Navarra ...*, op. cit., 243-252 orr.

80. FLORISTÁN IMÍCOZ, Alfredo. “Revisionismo historiográfico ...” op. cit., 27 orr.; ikus 12. oharra.

81. OSTOLAZA ELIZONDO, Mª Isabel; PANIZO SANTOS, Juan Ignacio; BERZAL TEJERO, Mª Jesús. *Fernando el Católico y la empresa de Navarra (1512-1516)*. Pamplona: Gobierno de Navarra, 2011.

82. CHAVARRÍA MÚGICA, Fernando. *Monarquía fronteriza: Guerra, linaje y comunidad en la España Moderna (Navarra, siglo XVI)*, Florencia: Departament of History and Civilisation, European University Institute, 2006.

83. ARVIZU, Fernando de. “Navarra: un reino en la Monarquía Española (1512-1829)”. In: *Anuario de Historia del Derecho español*, LXXXII (2012); 413-469 orr.

garbi agertzen da, Arvizuren ustez. Duela ehun urte Euskaroek eta Campionek (Arvizuk Boissonade ere arlo horrekin konektatzen du) bultzatutako korrontea indarrean legoke, argitalpen dinamika oso bizian. Arvizuk korronte hau agramontarren nolabaiteko berpizkunde bidean kokatzen du: “benetako” nafarrak 1512an agramontarrak izanik, euskal agramontarrek, duela 100 urte euskaroen eta Campionen antzera, gaur egunean Nafarroa Euskadin inkorporatu nahi izango lukete. Beraz, Nafarroa Euskadin integratu nahi izatea, Konstituzioaren Transitoria laugarrenaz baliatuz, “agramontarren” jaraunspenaren alorrean kokatzen du Arvizuk<sup>84</sup>. Oso garbi ulertarazten digu esan nahi duena, baina ez dakit ez ote litzatekeen korronte hori “beaumondar”tzat hartzea egokiago izango, zeren eta 1512an beste erresuma baten inkorporatuak izatea ez zen agramontarrek nahi zutena, baizik beaumondarrek onartu zutena.

Izenlagun egokienaren asunto hau alde batera utzita, Arvizuk ere konfirmatzen du, egiten duen historiografiaren analisian, norabide garbia marraztu dutela Boissonade, Champion, Pradera, Luis Suárez eta, bereziki, M. P Huicik. Kontuan hartuz Huiciren *En torno a la conquista de Navarra* 1993an aztertu zuela<sup>85</sup>, Arvizuk berriro goraipatzen du liburu horren ezaugarria: “inquietante”. Esan genezake, izugarrizko unanimitatea lego keela Huiciren ekarpena ontzat eman ahal izatean. Arvizuren hitzetan: “un libro ‘inquietante’, pues se aparta de la historiografía oficial, tanto la que intenta justificar la conquista como la que trata de hacer lo contrario. Es, por lo tanto, una obra no sólo valiente sino muy fiable por la gran cantidad de información en que se apoya”<sup>86</sup>. Hau irakurrita, uste dut justifikatzen dela nire artikulu honetan Maria Puy Huicik 1993an argitaratu zuen *En torno a la conquista de Navarra* liburuari eman diodan lekua eta garrantzia.

Azken bi urteetako uulta, beraz, oso oparoa da, eta ez da mugatzen aipatu ditudan liburuetara, baina uste dut garbi dagoela mahai gainean jarri den liburu sorta honek aukera aberatsa eta irekia ematen duela historiagintzan gabiltzanontzat. Bide batez, lagungarri egokia da nire azken gogoetara.

## **5. Nola begiratu 1512ari. Egungo egoera historiografiaren inguruaren zenbait gogoeta**

Nafarroaren konkista eta inkorporazioaren historiografiaren balorazio bat egin ondoren aurreko puntuetan, azken esparru honen helburua izango da, aurrera begira jarrita, gogoeta batzuk egitea, egungo egoeran azpimarratu daitezkeen ezagutza historiografiko alorrik kontuan hartuz: zein eztabaidea mota izan zen, lehia dinastikoaren pisua neurzeko premia azpimarratz; nolako elementu baldintzatzaleak kontuan hartu beharra dagoen; konkistak zein nolako ondorioak izan zituen, erresumaren ikuspegitik batez ere, eta ondorio sikologiko-kolektiboak alde batera utzi gabe.

---

84. Ibid., 414 orr.

85. Ibid., ikus artikulu honen 13. oharra.

86. Ibid., 417 orr.

### **5.1. 1512ari nola begiratu. Dinastiak eta geopolitika. Estrategia dinastikoak noblezi domeinuen aniztasuna nagusi zen ingurugune batean**

Nafarroaren 1512eko egitate funtsezkoak konkista bera dela ez da zalentzan jartzeko aukera handirik<sup>87</sup>. Ezta ere horretarako bitarteko militar ongi prestatuak erabili ziren. Egitate horrek sortzen dituen azterketarako hizpideak ere oso kontuan hartuak izan direla bistan da, hala nola, justifikazioa eta inguruko faktore dinastiko eta geopolitikoak. Sar gaitezen bigarren honetan.

Errege dinastiek eta beraien arteko lehiek zerikusi handia eta erabakigarria izan zuten Nafarroaren konkistan. Hori kontuan hartu gabe ezin da gaia behar bezala ulertu. Garaia berak aurkezten digu baldintza hori, garaiaren egituraren murgiltzen dena, denbora luzez gainera: XVIII. mendera arte gudu eta ekimen militar gehienak dinastikoak ziren edo lehia dinastikoaren magalean kokatzen ziren<sup>88</sup>. Ikupegi horretatik, oso ongi bideratzen du arazoa Jesus Maria Usunarizek<sup>89</sup>. Are gehiago, ordea, Nafarroako kasuan: ezinbestekoa eta astuna zen dinastia nagusien eragina. Nafarroako alor geopolitikoan eta inguru hurbilean zeuden garaiko goi mailako noblezi leinuak eta beren etxeak, modu dinamikoan aritzen ziren beren tokia mantentzen. Elkarren arteko erlazio-sare konplexuak zehazki aztertu beharra dago, sare horiei dagozkien eragina aitorutz eta emanetz. Hona hemen beste baldintza ahantz ezina, Eloisa Ramírez Vaquerok hain ongi aztertu eta gureganatu duena<sup>90</sup>.

Faktore dinastikoak Fernando Katolikoarenengan izan zuen eragina aho batez onartzen da. Beti azpimarratu izan da bere aitarekin izan zuen lotura hertsia. Aitak, Juan II.ak, ordea, Aragoiko Koroako errege izanik, Mediterraneoko mundua eta penintsulakoa lotzen zituen, Nafarroako gobernuak bere eskuetan izan zuen garai

87. OLIVER-COPONS, Eduardo. *Conquista y anexión de Navarra. Bosquejo histórico*. Madrid: Biblioteca Económica de Ciencias Militares, vol. V, 1888; IDOATE, Florencio, "Las fortificaciones de Pamplona a partir de la conquista de Navarra". In: *Príncipe de Viana*, 54-55 (1954); 57-154 orr.; ESARTE MUNIAIN, Pedro, *Navarra, 1512-1530. Conquista, ocupación y sometimiento militar, civil y eclesiástico*, Pamplona: Pamiela, 2001; MONTEANO, Peio J. *La Guerra de Navarra (1512-1529). Crónica de la conquista española*, Pamplona: Pamiela, 2010. DEL BURGO, Jaime; DEL BURGO; Jaime Ignacio. *Historia de Navarra. Desde la prehistoria hasta su integración en la Monarquía española (S. XVI)*, Pamplona: Ediciones Académicas, 2012. Azken ekarpent interesgarria eta zehatz oso: PESCADOR MEDRANO, Aitor. *Navarra, 1510-1513. Diario de una conquista*. Pamplona: Pamiela, 2012. Azken sintesi bat: MONREAL, Gregorio, JIMENO, Roldán. *Conquista e incorporación del reino de Navarra a Castilla*, Pamplona: Pamiela, 2012 (ikusi artikulu honen 4.1.).

88. BELY, Lucien. "Casas soberanas y orden político en la Europa de la Paz de Utrecht". In: *Los Borbones. Dinastía y memoria de nación en la España del siglo XVIII*, Pablo Fernández Albaladejo (ed.), Madrid: Marcial Pons, 2001; 69-98 orr.

89. USUNÁRIZ Jesús María. "Las reclamaciones dinásticas: Navarra en las negociaciones hispano-francesas (siglos XVI-XVII)". In: FLORISTÁN, Alfredo (Coord.), *1512. Conquista e incorporación de Navarra. Historiografía, derecho y otros procesos de integración en la Europa renacentista*, Barcelona: Ariel (Gobierno de Navarra) 2012; 299-334 orr.

90. Oinarritzko monografia, Álvaro ADOT, *Juan de Albret y Catalina de Foix o la defensa del Estado navarro (1483-1517)*, Pamplona-Iruña: Pamiela, 2005. Gogoeta oso aproposak, RAMÍREZ VAQUERO, Eloisa. "Catalina de Foix y Juan de Albret: los últimos reyes de un engranaje feudal". In: *En los umbrales de España. La incorporación del Reino de Navarra a la monarquía hispana* (Actas de la XXXVIII Semana de Estudios Medievales de Estella, 18 al 22 julio 2011), Pamplona: Gobierno de Navarra, 2012; 95-126 orr.

luzean, Blanca erreginaren senar eta, 1441tik aurrera, gobernari alargun gisa. Ez da baztertu behar, ordea, Juan II.a Alfontso Magnanimoaren anaia zela, eta honek Aragoiko Koroa gobernatu zuela Napolesko hirian bere gorteak kokatuz<sup>91</sup>. Trasta-marako etxeak lortu zuen botere maila izugarriaz jabetu behar gara Fernando Katolikoaren jarrerak eta ekimenak neuritzeraakoan<sup>92</sup>. Honek bere aitaren ereduak izan zituen, eta seme estimatuena izateaz baliatu zen, baina bere osaba Alfontsoren ereduaz ez zuen urrutti izan. Fernandok, izan ere, Siziliako printze izateko aukera izan zuen oso gazte zelarik eta gero Siziliako errege tituluaz jantzi zuen bere burua<sup>93</sup>. Alfontso Magnanimoak Napolesko erresuma bere seme Ferranteri bideratu zion, oinorde izendatzuz, baina Fernandok ez zuen burutik kendu erresuma handi, aberats eta hain geopolitikoki garrantzitsua zena berreskuratzeko asmoa<sup>94</sup>. Horrela, ez zuen etsi Napolesko erresuma handia bereganatu arte. Lortu zuen helburu hori, Trastamara gaztelar adarrekoa zen bere emaztearen laguntzarekin, baina Napoles eta Sizilia aragoiar patrimonio alorrean mantendu ziren. Ez da harritzeko, aurrekari hauek guztiek kontuan hartuz, Fernandok beste urrats bat eman nahi izatea, bere aitak denbora luzez gobernatu zuen Nafarroako erresumaz ere jabetzeko asmoan: dinastiaren betekizun benetan desiragarria. Hirurogei urte zeuzkan Fernandok 1512an. Juan eta Katalinak ez zeukanen etsai xamurra: ez zen errege arrunt bat, aurreko agintariaren seme kuttuna baizik, domeinu alor zabal, handi eta trinkoa be-regatzeko ibilbide luzean bere burua aspalditik ipinita zeukan.

## 5.2. “Italia” nola hartu eta baloratu

Faktore dinastikoak, maila geopolitikoan kokatuz, Italiako antzeptokian jartzen gaitu. Baina Italia aipatzen denean, kontuan izan behar da bereziki hegoaldeko Napoles eta Sizilia zirela nagusiki kontuan hartzen direnak. Izañ ere, Fernando Katolikoak bere domeinua berrezartzeraoan, bitarteko guztiek jarriz, konkista militarra ere, noski, Aragoiko Koroak area horretan izandako jarrerari eutsi zion. Hori zen XIII. mendearren amaieran, Siziliako ‘Vespro’ famatuaren geroztik, sortutako egoeraren ondorioetako bat<sup>95</sup>. Ordutik zetorren ‘Italia’ko politika baldintzatzaleak zekarren era-

91. RYDER, Alan. *El reino de Nápoles en la época de Alfonso el Magnánimo*, Valencia: Edicions Alfons el Magnànim, 1987, (Ed. inglesa, Oxford, 1976); CORRAO, Pietro. *Governare un regno. Potere, società e istituzioni in Sicilia fra Trecento e Quattrocento*, Napoli, 1991; Interpretazio honen harian, VILLACANAS, José Luis. *La Monarquía Hispánica (1284-1516)*, Madrid: Espasa, 2008; 172-181 orr.

92. Iku daiteke azken azterketa eta gogoeta arazo honi buruz: SESMA MUÑOZ, J. Ángel. “El matrimonio de Fernando e Isabel y la unión de las coronas de Castilla y Aragón”. In: *En los umbrales de España. La incorporación del Reino de Navarra a la monarquía hispana* (Actas de la XXXVIII Semana de Estudios Medievales de Estella. 18 al 22 julio 2011), Pamplona: Gobierno de Navarra, 2012; 27-55 orr.

93. VICENS VIVES, Jaime. *Fernando el Católico, Príncipe de Aragón, Rey de Sicilia 1458-1478: (Sicilia en la política de Juan II de Aragón)*. Madrid: Consejo Superior de Investigaciones científicas, 1952, 222 orr. eta hurrengoak.

94. Oso ongi ikusten du hau YANGUASEK, op. cit. [26. oharrean], Alfonso Magnanimoa hil ondoren sortutako egoera aztertzeraokoan: “Fernando el Católico lo hereda todo, fundando su ventura sobre las desgracias de su hermano”.

95. Artikulu honetan aipatzen ditudan monografiak (88-92 oharretan) modu sakon eta zehatzean neurten dute gaiaren aurpegi hau.

gina, zeren ordutik zetorren alor geoestrategiko zabal hori, Iberiar penintsula, Frantzia eta Italia arteko triangeluak osatzen zuena. Ordutik dator, baita ere, Aita Santutzaren paper goi mailakoa, nagusia.

Hori guztia dela eta, Nafarroako konkistan Italia eta Aita Santua aipatzen direnean oso garrantzitsua da kontuan hartzea, Aragoiko Koroak bere 200 urte aurreko haietan bete zuen tokia Mediterraneoko area geoestrategiko hain funtsezkoan<sup>96</sup>. Fernando Katolikoa norabide horretan kokatu behar da, eta hori eginez, hau da, Nafarroaz jabetzeko asmoa inguru horretan ipiniz, askoz hobeto uler daiteke prozesua bere osotasunean. Fernandok, bere emaztearekin batera bizi izan zen garaian, domeinu jabetze prozesu jakinak burutu zituen: Granada, Napoles, Kanariko irlak eta aurkitutako itsas harantz zeuden lurralte ezezagunak<sup>97</sup>. Isabel erreginarekin dinastiaren osotasun eta gailurrera iritsi izanaren eragina ezin da alde batera utzi, aipaturiko bere aurreko belaunaldiek eskaintzen zitzuten ereduekin batera. Faktore horiek kontuan hartuz ulergarriago eginen zaigu, baita ere, Frantziaren aldetik jasotako oposizioa, hau ere norabide luzekoa. Italiako alor politiko hain estimatuau sartzeko arrazoi dinastikoak etengabean mantendu zirenei, eta eragin handia izan zutelarik 1700garren urteko Oinordetza Gerra arte.

Bi aldetatik, beraz, baldintzape dinastiko indartsuak, kontrajarriak, antzezleku ezagun eta erabakigarri batean. Baino triangeluaren bertizean agintari politiko-erlijioso nagusia Aita Santua zen. Esan gabe doa hiru lehiakideen artean berdintasuna dagoenean eta lehenengo biak parean daudenean, hirugarrenak erabakitzent duela. Fernandok hirugarren protagonista hau bere alde jartza lortu zuen, eta, horrela, etorkizuneko norabideak bereganatzent zituela garbi agertzen da.

### **5.3. Fernando Katolikoa eta bere “makiavelismoa”**

Fernando Katolikoa aipaturiko ikuspegi dinastikoan hartu behar dela deritzot, bere jarrera eta eman zituen urratsak, hain garbi aurreikusten zituenak, hain zuen ere, nola bideratu zituen aztertzeraokoan. Errege honek, Nafarroari buruz izan zuen politika dela eta, bere garaian, gero, eta, bereziki, gaur egunean, kalifikazio gogor eta ezezkorrak jaso izan ditu<sup>98</sup>. “Makiavelikoa” izatea leporatu izan zaio, baina hori ia erreduntantzia bihurtzen da, Makiavelorentzat eredu izan baitzen Aragoiko ‘duce’ hura. Guicciardini ere epaile zuzena izan zen, Fernando Katolikoaren egintzak baloratzerakoan, modu zorrotz eta, orokorrean, nahiko neutroan. Izen-

96. VICENS VIVES, Jaime (DR. J.). *España. Geopolítica del Estado y del Imperio*, Barcelona: Editorial Yunque, 1940; 61 orr. Arazoaren adar jurídico, institucionala, ekonomikoa, dinastiko... oso zehazki eta sakon aztertu zituen, Jesús LALINDEK, *La Corona de Aragón en el Mediterráneo Medieval (1229-1479)*, Zaragoza: Institución Fernando el Católico, 1979.

97. Iku daiteke azken sintesi bat, baina penintsula iberiarra soilik hartzen duena: ESTÉVEZ, Xosé. “La política peninsular de los RR.CC.”. In: 1512. *Euskal lurralteak eta nafar Estatua. Los territorios vascos y el Estado Navarro*. Actas del II Congreso de Historiadores de Navarra, Donostia: Txertoa, 2011; 91-125 orr.

98. ADOT LERGA, Álvaro. *Navarra, julio de 1512. Una conquista injustificada*. Pamplona: Pamiela, 2012. (Prólogo por Pierre Force, colaboración de Izaskun Aisa Larumbe, traductora del texto de Francesco Guicciardini de la obra *Historia de Italia*).

lagun peioratibo guztiak jartzea lan erraza da, baina izenlagun gehien horiek kontrako esanahian hartu ahal izatea ere bistan dago: gaiztoa, bihurria, gezurtia, maltzurra, berekoia, egozentrikoa (egolatra ere?)... ezaugarri hauek denak pertsona baten akatsen ispilu badira ere, agintari politiko goi-mailako bati jartzen zaizkionean, ardura sakon eta konplexuetan baliatu behar zena izanik, etsai amorratuak aurrean zeuzkalarik... akats horiek dohain bilaka daitezke, eta bat-batean gizon prestua, azkarra, epe luzerako erabakiak hartzen zekiena azaldu daiteke gure begien aurrean.

Behar bada, oraindik ere interesgarria izan daiteke baloratzea anbizio pertsonala edo dinastikoa ote zen nagusi Fernandoren baitan. Agian biak bat egin dezakete, baina nire iritzian Katolikoarengan, helburu dinastikoa, familiakoa, burutzeko asmoa zen nagusi. Badago puntu honetan datu adierazgarria. Nafarroa bereganatu bezain pronto, eta bere burua erresumako agintari tokian jarri ondoren, Aragoiko Koroan bere esperientzia politiko luzean zehar izan zuen jarrera eta neurri politiko eta instituzional betikoak ezarri zituen Fernandok Nafarroan: zuzenbidea eta instituzio juridikoak mantendu; erregeorde bat izendatu; beste erresuma “printzipal” guztiak zeukaten baldintza antzekoak ipini. Azken batean, bakea eta oreka orokorra lortzeko bitarteko egokiak zirela bazekien. Badirudi gorrota, anbizio pertsonala, maltzurkeria, inbasio militarraren harian emandako pausoak... Fernandoren eragin berebizikoa izan balute, txikizioaren eta erre-bantxaren indarrez, erresuma suntsitze bidean kokatzeko jarrera azaldu izana logikotzat hartu ahal izango genukeela. Baino ez zuen horrelakorik egin. Ezkontza baten ondorioz sortutako batasuna izan balitz bezala jokatu zuen, baretasuna, zirkunstantzien araberakoa, lortuz<sup>99</sup>. Bere familiak izandako jarrera hartu zuen Katolikoak, azken batean, aitari ikusitakoari jarraituz, eta osabaren eredu urrunagoa, baina ezaguna, kontuan hartuz<sup>100</sup>. Inork ez du zalantzaz jartzen hauek guztiak molde autoritario hutsak zirenik. Fernando Katolikoa maisu zen dena bere kontrolpe zuzenean ipintzen: hori zen bere jarrera tipikoa, Nafarroan ere agertu zena.

Bere pertsonalitatearekin eta ezaugarri psikologiko jakin batzuekin lotzeko arrazoi asko daude, baina asuntoaren aurpegia hau aski ikusia dagoela iruditzen zait, bai begirunea azalduz goraipatzeko aukera hartzen bada, edo kontrakoan kateatzen bagara. Bestalde, gauza ezaguna da Fernando eta ondorengoak nola baloratuak izan ziren Espainiatik kanpo. Horren lekuo, hona hemen 1624an idatzitako Inglaterrako erregeari zuzendutako aholku politiko batean, zein nolako gogoeta irakur daitekeen:

99. Ikus MONTEANO, *La guerra de Navarra ...* (op. cit.); 105 orr.: “Fernando de Aragón se cuidó mucho de que la victoria beamontesa no fuera aplastante y trató de contrapesarla otorgando premios y cierto poder a los agramonteses que se habían adherido a su causa”. Horrekin batera, Monteanok azpimarratzen du (116 orr.) Fernando Katolikoa erakundeak errespetatu zituela.

100. GALASSO, Giuseppe. “Procesos de integración en Europa (siglos XV-XVII). Conquistas, uniones, aceptaciones y rechazos”. In: FLORISTÁN, Alfredo (Coord.). *1512. Conquista e incorporación de Navarra. Historiografía, derecho y otros procesos de integración en la Europa renacentista*, Barcelona: Ariel (Gobierno de Navarra), 2012; 19-27 orr.

Ferdinando de Aragon, que era la raíz de la Monarchia Española, era el príncipe mas injusto, cruel, sangriento o sediento de sangre, y fidefrago (sic) de su tiempo, y esto con todos, aunque fuisen (sic) primos, cuñados o sobrinos, y en este fundamento estrivía el edificio Español<sup>101</sup>.

Ez du ematen horrelako iritziak hain zabalduak zeudela kontuan hartuz, etenkin handirik dakinarenik Fernando Katolikoaren portaera maltzurra behin eta berriro azpmarratzeak. Erresumaren egoera konpondu nahi izatea ez zegoela errege honen helburuen artean egia izan daiteke, Alvaro Adotek ondorioztatzen duen bezala, dokumentazio berria aztertuzedo beste ikuspegia batetik begiratuz lehendik zegoena. Baino, zer ondorio atera daitezke egitate horretatik?<sup>102</sup> Justifikazio gabeko eki-mena izan zela? Hau izan daiteke hurrengo puntuoa.

#### **5.4. Justizia; justifikazioa. Parte hartze politiko eta militarra**

